

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



UKRAINAKO GERRA

**ETORKIZUNA
ELKARTASUNETIK**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACIÓN
PROFESIONAL

heziketa zikloak

Erdi eta Goi mailako
zikloak

Espezializazioak



Elgoibar

Maiatzak 7

11:00etan

Informazio saioa

Hartu lekua!



Fp



BALEIKE 320

2022-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | |
|---|--|
| <p>4 Hitz tantak Jabi Gonzalez Toston
<i>Aitor Agirre</i></p> <p>6 Hainbat aburu Oier Zeberio
Maiztegi
<i>Pablo Gonzalez eta prentsa askatasuna</i></p> <p>7 Errematea Iosu Alberdi
<i>Besteak</i></p> <p>8 Elkarriketa Maria Maya
Manterola
<i>Irati Oregi Belaustegi: "Suizidioaz hitz egitea prebentzioa lantzeko modu bat da"</i></p> <p>13 Erreportajea Onintza Lete Arrieta
<i>Gerra ondorengo egunak</i></p> <p>20 Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Ibon Uranga, Sukaldaritza irakaslea</i></p> <p>25 Heziketa Mireia Centeno
<i>Haurrak heriotzaren aurrean</i></p> | <p>26 Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Harkaitz Bastarrika</i></p> <p>28 Plazan bazan</p> <p>31 Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Babesguneetako habitatak: lurraldeko tapiz preziatuenak (I)</i></p> <p>37 Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Poz bat, zulo bat</i></p> <p>43 Agenda</p> <p>44 Literatura Antton Peñalba
<i>Emakumearen askatzea xumearen begiradatik</i></p> <p>45 Kultura Maria Maya Manterola
<i>Kale izen bat baino gehiago</i></p> <p>46 Azkena Juan Luis Romatet
<i>Prokrastinazioa</i></p> |
|---|--|

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue Ibarbia
Jabi Gonzalez Toston
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Aitor Agirre

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Gazte mailari agur esanda lehen urtea du afizionatuetan Aitor Agirre Egaña (Zumaia, 2003) txirrindulariak. Hori gutxi balitz bezala, taldez ere aldatu du: Viveros San Antonetik Euskadi Fundazioaren Laboral Kutxa taldera egin du jauzi. Denboraldi hasiera, ordea, ez da oso ona izan, bi eroriko izan baititu. Dena den, hori ahaztuta, gogotsu dago aurretik dituen erronkei ekiteko.

Nolako txirrindularia da Aitor Agirre Egaña?

Ordekan mendateetan baino hobeto moldatzen naiz, erlojupekoetan, batez ere; baina gustuko ditut aldapatxoak ere. Gorabehera askoko ibilbideak ditut gustukoen, txirrindularitza profesionalako udaberriko klasikoen tankerako lasterketak.

Nolakoa ari da izaten egokitzea afizionatu mailara?

Uste nuena baino errazagoa ari da izaten. Egia da lehen bost lasterketatik bitan erorikoak izan ditudala, baina ez dira larriak izan. Gainera, diotenez bolada txarraren ondoren ona dator; beraz, aurrerantzean gehiago ez erortzea espero dut.

Zertan antzeman duzu aldaketarik handiena?

100 kilometro inguruko lasterketak egitetik 150 kilometroko lasterketak egitera pasatu naiz.

Horrez gain, tropela osatzen dugun txirrindularion artean adin tartea ere zabalagoa da orain, eta hori ere igartzen da, noski; eskarmentuan, batez ere. Martxoan korritu genuen lasterketetako bat, esaterako, 35 urteko txirrindulari batek irabazi zuen; Frantziako Tourrean aritutakoa, gainera.

Prestaketa ere ez da lehengoa izango. Zenbat entrenatzen du txirrindulari afizionatu batek?

Entrenamenduak luzeagoak eta aldi berean gogorragoak dira, biziagoak. Guztira hamahiru bat orduz entrenatzen dut astelehenetik ostiralera, egunaren arabera gehiago edo gutxiago: saio lasaiak ordu eta erdikoak izaten

dira, gutxi gorabehera, eta gogorragoak hiru edo lau ordukoak. Taldeko zuzendaria dut entrenatzaile, eta berak agintzen dit asteen zehar egin beharrekoa.

Zumaiako taldean, Viveros San Antonen, herriko lagunekin aritzetik afizionatuetako talde garrantzitsuenetako batera egin duzu jauzi. Hor ere izango da aldea...

Bai. Lehen gertukoa zen harremana, familia moduko bat osatzen genuen eta lasterketa aurretik bertsotan aritzen ginen maiz; orain, serioagoa da taldeko giroa. Txantxak ere egiten dizkiogu elkarri, baina behin kaskoa eta dortsala jantzita, lasterketa abiatzeko ordu erdia falta denean, isiltasuna nagusitzen da. Bakoitzak zuzendariak agindutako talde estrategia betetzea baino ez du buruan.

Azkar hartu zenuen Laboral Kutxaren eskaintza onartzeko erabakia?

Beste talde baten eskaintza ere izan nuen eta zalantza egin nuen nora joan. Beste eskaintzan, baztertu nuenean, presio gutxiago izango nuen eta lasterketak lasaiago hartzeko aukera, zeren eta banekien Laboralen serioago hartu beharko nituela eta lehen urtean taldekide nagusien mesedetan lanean aritu beharko nuela, gehien bat. Momentuz, urte bakarra adostu dugu eta jarraipena egiten dudan denboraldiaren arabera izango da.

Euskaltel Euskadi taldearen harrobia da Laboral Kutxa, horra iritsi eta profesional bilakatzea duzu helburu?

Ametza betetzea litzateke profesional izatera heltzea eta Euskal Herriko itzulian edota Donostiako klasikoan parte hartzeko aukera izatea.

Eta aurtengo denboraldiari begira, zer erronka jarri diozu zeure buruari?

Aurtengoa ikasteko urtea da, lasterketaren bat irabaztea oso zaila izango da; beraz, hamar lehenengoen artean helmugaratuz gero, gustura nengoke. ■■■





Pablo Gonzalez eta prentsa askatasuna

Otsailaren 28tik preso dago Polonian Pablo Gonzalez kazetari euskalduna. Behin-behineko espetxealdian egongo da maiatzaren 29ra arte. Fiskaltzak Errusiaren mesedetan espioitza lanak egitea eta "Poloniaren segurtasuna" kolokan jartzea leporatzen dizkio. Akusazioa oso larria da, baina autoritateek ez dute inolako frogarik aurkeztu. Atxilotu zutenean, Pablok bi pasaporte zituela diote (bata errusiarra eta bestea espainiarra). 1 eta 10 urte arteko kartzela zigorra jasotzeko arriskuan dago. Momentuz ez du bere abokatuarekin hitz egiteko aukerarik izan, ezta familiarekin ere.

Gerran gaude, eta egoera honetan adierazpen askatasuna murriztu eta giza eskubideak

urratu egiten dira. Baita Europako Batasunean ere. Poloniako Gobernuak Europako zuzenbide komunitarioa urratu du edozein erregimen antidemokratikok egingo lukeen maila berean. Egoera horren aurrean, Espainiako Estatuko ordezkarien, telebista kateen, kazetarien eta abarren jarrera oso epela izan da.

Gerra Zibilean Errusiara ebakuatutako "gerrako ume" baten biloba, Gonzalez jaiotzaz errusiarra da (horregatik du Errusiako pasaporte), baina umea zela Kataluniara joan zen bizitzera, eta Euskal Herrira ondoren (horregatik dauka, baita ere, Espainiako pasaporte). Azken urteetan Sobietar Batasun ohiko herrialdeetan izandako gatazka militarretan aritu da lanean, baina baita herrialde horietako

beste hainbat kontutan ere: giza eskubideak, politika nazionala eta hauteskundeak, etab.

Duela sei hilabete egin nion elkarrizketa batean garbi adierazi zidan zer zen beretzat kazetaritza: "Nire lana gertatzen dena bere osotasunean azaltzea eta ulertaraztea da", zioen. Oso hedabide ezberdinekin kolaboratu du azken urteotan Gonzalezek: *Gara* eta *Naiz*, *Público*, *La Sexta*, *DW*, *Voice of America*, *EFE* eta *France Presse* agentziak etab. Azken hilabeteotan Poloniatik eta Euskal Herritik egiten zuen lan.

Egon zen gudetan, Ukrainakoan (2014-) eta Armeniakoan (2020), adibidez, gerraren arrazoiak xehetasunez azaltzeaz gain, bi aldeekin batu zen eta biek esandakoak jaso zituen, "irakurleak informazioa eduki eta bere kriterio

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Besteak

Martxo erdialdean, ordurako Ukrainatik ihesi ateratako herritarrak Euskal Herrira iristen ari zirela, Eusko Jaurlaritzak autobus batean sartu gintuen hainbat kazetari; besteak beste, Irunen errefuxiatuak jasotzeko martxan jarri berri zuten 55 Pabilioia eta urteak jardunean daramatzan Hilanderasko harrera zentroa erakusteko. Gobernu ordezkariak azken horretan zirela, baina, gure herria zeharkatzen duen beste errealitate batek jo zuen atea. Espainia hegoaldetik autobusean iritsi berri ziren Saharaz azpiko 32 migratzaile sartu ziren eraikinera.

Zentrora arteko bidea Irungo Harrera Sareko kide batekin egin zuten. Solasean, gerora ere sarri entzun dudana galdera bera bota zuen: «Zergatik batzuei bai eta besteei ez?». Erakundeen erantzunaz, laguntzeko gogoez, ari zen. Galdera hark are oihartzun handiagoa izango zuen biharamunean. Ibrahim, besteetako bat, Bidasoa ibaia gurutzatu nahian desagertu zen. Haren gorpua ez zuten hiru aste igaro arte aurkituko. Ez da Ibrahim modu horretan bizia galdutako lehena. Urrunago joan gabe, azaroan Santiago zubian izan zen kazetari hau. Sohaiboren agurrean. Orduan ere eskaera bat: neurriak, "Bidasoa izenik gabekoen ibaia izan ez dadin". ■

propioarekin egoera aztertzeko aukera izan dezan". Gertatzen ari dena bere horretan kontatzeak eta datu guztiak mahai gainean jartzeak, ordea, arazoak sortzen ditu. 2016an argitaratutako txosten sekretu batean, "errusiarzale" gisa sailkatu zuten beste hainbat kazetari eta analistarekin batera. Narratiba ofiziala apurtzen dutenak "etsaiaren" propagandista gisa sailkatzeko joera dago zenbait kasutan.

Polonian atxilotu baino 19 egun lehenago Ukrainan zegoen Gonzalez. Bertan, Ukrainako segurtasun zerbitzuaren dei bat jaso zuen. Kievera joateko esan zioten, galdeketa bat egin behar ziotela eta. Lau ordu inguru iraun zituen "hizketaldiak". Telefono mugikorra kopiatu zioten eta Ukraina uztera gonbidatu

zuten. Ukrainako galdeketa izan eta berehala, Espainiako Estatuan, CNI inteligentzia zerbitzuak Pabloren senideak eta gutxienez inguruko pertsona bat galdekatu zituen. Hori jakin bezain pronto, Gonzalez ziztu bizian itzuli zen Ukrainatik Euskal Herrira. Hurrengo egunetan ez zuen CNiko kideen, poliziaren edo Ukrainako segurtasun zerbitzuaren berririk izan.

Gogoeta horrek ondorio lazgarriak izan zituen. Errusiak Ukraina inbaditzean, otsailaren 24an, Poloniarako bidaia hasi zuen Euskal Herriatik. Lana egiteko toki segurua zela uste zuen. Otsailaren 25a eta 28a artean errefuxiatu ukrainarren egoera izan zen bere azterketa gai nagusia. Otsailaren 28an, goizaldean, deskantsatzen ari zen bitartean, atxilotu zuten. ■



"Suizidioaz hitz egitea prebentzioa lantzeko modu bat da"

IRATI OREGI BELAUSTEGI FAMILIA MEDIKUA

Bidasoko Ospitalean familia medikua da Oregi. Osasungintzari beste ertz batetik heltzeko asmoz, Suizidiologia masterra egin du. Gaia lehen lerroan dagoela dio, baina sinesmen okerre zikinduta. Postbentzioan arreta jartzea beharrezkoa dela uste du, bere buruaz beste egin duen pertsonaren ingurukoengan, alegia.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Familia medikua da Irati Oregi Belaustegi (Zumaia, 1993). Lanean zegoela ezagututako kasu bati esker heldu zion suizidioaren gaiari akademikoki, eta masterra egin berri du EHUren Leioako Campusean. Dena den, "gai soziala" dela uste du. Gaiaren inguruan gehiago hitz egiteko eta, batez ere, entzuteko beharraz aritu da BALEIKerekin.

Medikuntza amaitu eta Suizidiologia masterra egin berri duzu. Nolatan erabaki zenuen ikasketa horiek egitea?

Medikuntzan buru osasunari lotutako guztia Psikiatriaren barruan dago. Beste espezialitateetan ez da ukitzen. Medikuek batek garatuago eduki dezake enpatia, edo jakin-mina izan buru osasunean. Traumatólogo batek, esaterako, lesioak sendatuko dizkizu, baina gainerakoa ez da bere ardura.

Suizidiologia ikasketak egitea erabaki nuen larrialdietan hogei urteko gazte baten kasua

ezagutu eta gero. Pilulen gaindosi batekin artatu genuen. Berak esan zigun hiltzea nahi zuela, eta larrialdietara etorri zen amak harrapatu zuelako.

Gai hori tabu bat da, eta ez dugu jakiten horrelakoetan zer egin. Horixe gertatu zitzaidan paziente harekin ere; ez nekien nola lagundu.

Dena den, suizidioaren gaia ez da buru osasuneko kontu bat bakarrik. Suizidioa bera buru osasunaren barruan sar dezakegu, baina gai soziala da, berez. Gertatzen diren gauzek eragina baldin badute norberarengan, horrek ez du esan nahi nahitaez buru osasuneko arazoren batekin lotutako zerbait denik, baizik eta erreaktiboak garela gertatzen zaigunarekiko.

EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean ikasi duzu, Leioako Campusean. Zein zen ikasleen profila?

Psikologoak eta gizarte hezitzaileak ziren gehienak. Medikuek ere bai pare bat, irakasleren bat edo beste, ertzain bat eta kazetariak.

Espero zenuena ikasi duzu?



Suizidioa zer den definitzea ere kosta egiten zitzaidan hasi nintzenean. Ez nekien fenomenoa zer zen. Pertsona hil egiten dela bai, baina ez horretara zerk eraman dezakeen bat.

Ikasi dugu historikoki nondik datorren, zein den munduan dagoen intzidentzia, eta arlo bakoitzean nola aurkezten den: hezkuntzan, osasunean, larrialdietan... Azkenengo zatian postbentzioaz aritu gara. Hor ikasi dugu familiak nola egiten dion aurre galerari. Dolu bat da, baina bereziki zaila: espero ez duzuna izaten da normalean, eta espero izanez gero, kulparen karga dakar berarekin. Badaude familiartekoak laguntzeko erakundeak.

Postbentzioarena interesgarria da. Espainia mailan, esaterako, ez zaie segimendurik egiten familia horiei, eta babesgabe geratzen dira. Hitz egiteko gai zaila da, eta normalean, kanpotik ere leporatzen zaie familiakoei.

Zeure ekimenez erabaki duzu gaia lantzea, beraz. Uste duzu osasungintzatik gai horri erreparatu beharko litzaiokeela?

Ez dugu formakuntzarik jasotzen gai honen inguruan. Profesionalek badaukate jakin-mina honen inguruan ikasteko, baina ez dugu tresnarik eskura. Badaude idatzitako protokoloak, baina beldurra daukagu norbaiti bere buruaz beste egitea pentsatzen ari den galdetzeko, baiezko erantzuna jasozer gero, askotan ez dakigulako zer egin behar den buru osasunera bideratzeaz gain.

Baiezko horri zer jarraipen eman jakin nahi izan dut. Gabezia badago; nik, behintzat, ez dut Osakidetzan oinarritzko formakuntzarik jaso. Gertatzen dela jakin, badakigu, baina kasu batzuetan gaixotasun batzuen barruan gertatzen den fenomeno bat bezala, eta ez edonori gerta dakiokkeen zer bait bezala.

Gaian sakontzen joan ahala, zerbaitek harritu zaitu?

Estatuan hamar kasu izaten dira egunero, batez beste. Kasu horietako bakoitzeko hogeitasei saiakera izaten dira, eta suizidio bakoitzak inguruko zazpi pertsonarengan izaten du inpaktua.

Pandemia garaian hasi nintzen ikasten, eta asko entzun dugu asko igo direla kasuak azken hilabeteotan. Hori ez da egia. Eustaten edo INEn begiraturaz gero, ikus daiteke joera goranzkoa dela, baina ez dela izan bat-bateko igoerarik. 2010ean eta 2020an heriotza maila antzekoa izan zen. Horrek harritu egin nau.

Buru osasuneko arreta handitu da; jendeak eskatu egiten du osasungintza publikoan

psikologoarengana joateko hitzordua. Baina suizidio tasak ez, ez dira handitu.

Gertaera historiko eta sozioekonomikoekin badauka loturarik tasaren gorabeherak?

Bai, eduki dezake. Krisi garaian baino gehiago, krisi ondorenean igotzen dira kasuak. Krisian multzo bat eratzen dugu, eta elkar gehiago zaindu. Gero, *gerraoste* horretan nabaritzen da punta bat.

Gabon inguruan ere igotzen dira. Ikusiko dugu zer gertatzen den datozen urteetan.

Ez dakigu nola prebenitu, ezta gertatu ondoren gaiari nola heldu ere.

Hori da. Prebentzioa eta interbentzioa lantzen dira, hala ere, gehien, eta postbentzioaz ahaztu egiten gara. Gainera, ikusi da postbentzioa bera tratatzea prebentzio mota bat dela; familiarteko batek bere buruaz beste egin eta gero gaia behar bezala lantzen ez bada, arrisku handiagoa dute familiakoek gauza bera egiteko.

Gazteen arteko heriotzen kausa nagusia omen da.

Ez dakit mito bat ote den. Egia da hori esaten dela, baina kontuan eduki behar da pandemiaren kontestuan zabaldu dela. Murrizketak eta neurriak direla medio, jaitsi egin dira istripuak, eta hori zen lehen gazteen heriotzen kausa nagusia. Horregatik azaleratu da suizidioa.

Ohikoena 45-60 urte arteko gizona izaten da. Talde zaurgarriak dira nerabeak eta adineko pertsonak. Adinekoak bakarrik bizi direlako eta fisikoki mugatuta daudelako, eta nerabeak orduantxe daudelako lagun taldeak sortzen, sozialki garatzen... Eta, gainera, ez daukate hori kudeatzeko tresnarik garatuta.

Arrisku faktoreak idatzita eta aztertuta daude, baina ez da lortu arrisku faktoreetatik suizidio maila jaitea. Buru osasuneko arazoak dituztenak, ezkongabeak, gizonezkoak, nerabeak, LGTBI+ kolektiboko pertsonak... Horiek dira arrisku faktore batzuk.

Garai batean esaten zen: badakigu zeintzuk diren hiltzen direnak; bada, jar ditzagun talde horiek babesteko mekanismoak eta landu dezagun prebentzioa. Baina ikusi da prebentzioa horrela eginda ez dela tasa jaisten. Unibertsala izan behar du. Arrisku faktoredun pertsona horiei zuzendutako beste kanpaina bat ere egin daiteke, baina unibertsalak egon behar du. Ezin da jakin zer egingo dugun gizakiok, eta ezin da jakin bakoitzak nola erantzun dion bere bizitzari.

Zertan oinarritu beharko litzateke kanpaina unibertsal hori?



**"KRISI GARAIAIN BAINO, ONDOREN
IGOTZEN DIRA KASUAK,
'GERRAOSTE' HORRETAN"**

**"PROFESIONALOK BADUGU JAKIN-
MINA GAI HONEN INGURUAN, BAINA
EZ DUGU TRESNARIK ESKURA"**

**"KONTUA DA IDEIA HORIEK EDUKIZ
GERO, IDENTIFIKATZEA ETA
LAGUNTZA ESKATZEN JAKITEA"**

Telebistan iragarkiak eman daitezke, genero indarkeriarekin edo trafiko istripuekin egiten den bezala, eta telefono zenbaki bat zabaldu. Orain atera dute bat; laster jarriko dute martxan.

Bestetik, jendea bere buruaz beste egiten ari bada menditik behera botata, kartel bat jar daiteke, telefono zenbakiarekin. Frogatuta dago horrelako oztopoak jartzen gutxitu egiten direla kasuak. Prebentzio unibertsala da hori.

Eta zer egin behar da azkenengo oztopo horietara ez iristeko?

Hezkuntza emozionalak garrantzia handia du. Jakin behar duzu zeintzuk diren zure emozioak eta zer ari zaren sentitzen, hori azaltzen ez dakielako askok. Eskoletan eta etxeetan landu beharko litzateke. Uste dut martxan dagoela, eta hemendik aurrera gehiago entzungo dugula horretaz.

Suizidioaren ideia saihestea uste dut ezinezkoa dela. Eta kontua ez da horren inguruan ez pentsatzea. Kontua da ideia horiek edukiz gero, zer egin jakitea. Identifikatzen jakitea eta laguntza eskatzea, alegia.

Zeintzuk dira pertsona bat bere buruaz beste egitera eramanez gero sentimenduak?

Min gobernaezina aipatzen da askotan. Ebakiak-eta egiten dituzte min psikiko hori min fisikoarekin nolabait orekatzeko. Karga bat direla ere uste izaten dute, eta etsipena sentitzen dute. Hiru sentimendu horiek sintoma komunak dira bere buruaz beste egiten duen jendearengan.

Gehiago hitz egiten al dugu orain buru osasunaz?

Bai, igo egin da arretaren eskaria. Nire lankideek ere nabaritu dute. Ez dakit esaten zergatik den. Lehen ere bazegoen igual, baina azaleratu egin zaigu. Harreman sozialak ere murriztu behar izan ditugulako, beharbada.

Gure ezkutatzeo estrategiak ere izan daitezke. "Ez nago ondo, eta banoa lagunekin zerbait hartzera". Guri geure buruarekin egotea tokatu zaigu.

Ez dago profil zehatzik, edonori gerta dakioko. Generoari dagokionez, emakumezko bateko lau gizonezko hiltzen dira suizidioz. Baina saiakera horiek askoz altuagoak dira emakumeen kasuan. Zer pentsatua ematen du, azken finean, saiakera horiek dakartelako pertsona horri arreta eskaintzea. Iruditzen zait emakumeok badaukagula erraztasuna gure emozioen inguruan hitz egin eta laguntza eskatzeko, oro har. Gizonezkoek beharbada ez dute ondo identifikatzen gaizki egote hori, ez dute konpartitzen, eta erabiltzen dituzten metodoak hilgarriagoak dira. Badute lotsa bat hitz egiteari lotutakoa.

Nola hitz egin suizidioaz, heriotza bera ere tabua denean?

Hitz egiten. Uste dut beldur handia ematen digula gaiak. Mito bat da, adibidez, suizidioaz hitz egiteak heriotza tasak handitzen dituela. Ez dakit zeren beldur garen.

Tresna horiek emateak ez du sortuko intzidentzia handitzea. Egoera horretan dagoen jendea hitz egitera bultzatzea baizik.

Ez da galdetzeko beldurrik eduki behar. Egia da guri ere, osasun langileoi ere, asko kostatzen zaigula.

Mitoak aipatu dituzu.

Sinesmen oker asko ditugu gai honen bueltan. Hil nahi duena hil egingo dela, adibidez. Lehen esan bezala, heriotza bakoitzeko hogeitahi saiakera egoten dira batez beste, eta oso barneratuta dugu asmoa arreta bereganatzea izaten dela. Hori ere gezurra da; zenbat eta saiakera gehiago egin, orduan eta altuagoak dira hiltzeko aukerak.

Pentsa zer gogorra den zure semeak edo alabak besoa moztu behar izatea ohartarazteko. Akaso

horretan ari da, baina zerbait gehiago dago horren atzean. Askotan banalizatu egiten da ohartarazteko kontu horrekin. Agian ez du heriotzaren nahi hori presente edukiko momentu horretan, baina horri eutsi egin behar zaio.

Entzun beharrean, joera izaten dugu triste egote hori gutxiesteko. "Nola egongo zara triste, dena daukazu-eta". Gehiago entzun beharko genuke. Tunel horretan sartuta zaudenean, ez duzu argirik ikusten.

Komunikabideok hanka sartzen ari gara?

Medioek garrantzi handia duzue gai honen prebentzioan. Medioen bidez zabaldu da, lehen esan bezala, intzidentziaren igoeraren berria. Ez ditut titular horiek ulertzen.

Egia da igual ez direla medio ofizialak. Medioak guztiok gara; denok dugu Facebook, Instagram, edonork idatz eta zabaldu dezake. Nik uste dut leku askotan ez dela behar bezala lantzen gaia. Datu pertsonalak ematen dira, eta ez da fokoa prebentzioan jartzen, morboan baizik. Askotan ezaugarri bati lotzen zaio: lanetik bota dute, eta, beraz, bere buruaz beste egin du. Hori ez da horrela, suizidioa multikausala baita. Sinplifikatu eta glorifikatu egiten da.

Gai honi profesionalki edo akademikoki urrutirago joateko gogoz geratu zara?

Konturatu naiz gai honekiko interesa badagoela lan egiten dudana eremuan. Asmoa nik ikastea eta eguneroko bizitzan erabiltzea zen, baina bultzada bat nahi diot eman lanean.

Larrialdietako paziente harekin gertatu zitzaidana ez gertatzea da asmoa. Horrelako kasu bat gertatuz gero, gu hain galduta ez egotea, alegia. Espezialista batengana bidaliko dugu seguru, baina lan asko dago egiteko detekzioan. Saiakera bat eginda etortzen bada norbait, segituan erantzuten dugu. Asmoa da hankeko minarekin datorren norbaitek halako ideia bat badu, detektatzeko kapazak izatea.

Nahi eta nahi ez jarraituko dut. Gaia pil-pilean dago.

Lehen lerrera atera da gaia, baina ikuspegi egoki batetik?

Uste dut entzun egiten dugula, baina ez dakigula oso ondo zer den.

Gainera, ez da egia intzidentziaren igoera hori. Beldurra daukagu, saiakera asko ikusten ari garela eta nola kudeatu edo zer irtenbide eman ez daukagulako garbi. ■■■■



Gerra ondorengo egunak

2015etik harreman estua zuten Ane Artetxe zumaiarrak eta Tania Ivanenko eta haren alaba Anna Omelchenko ukrainarrek, azken hori Artetxeren etxera etortzen zelako uda pasatzera. Errusiak Ukraina inbaditu zuenean Artetxek ez zuen zalantzarik egin, eta ez du amore eman ama-alabak herrira ekarri arte. Goizegi da etorkizunaz hitz egiteko, baina itxura du elkarrekin eta elkartasunetik egingo dutela bidea. Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

GERRA LEHERTUKO ZENIK EZ ZUTEN USTE AMA-ALABEK, "OSO ESKERTUTA" DAUDE HEMENGU FAMILIARI

"BIZIRIK ZEUDELA BAKARRIK JAKINDA, LASAITUA HARTU GENUEN", ESAN DU ARTETXEK

Goibel dago eguna, eta halaxe daude Tania Ivanenko (Ukraina, 1985) eta Anna Omelchenko (Ukraina, 2008) ama-alabak ere. Santelmoak gainean dira, apirilak 21 ditu gaur, eta zazpi egun daramatzate Zumaian, Ane Artetxe (Zumaia, 1986) eta haren familiaren etxean. Ivanenkok, baina, gogoia bere herrian dauka, Ukrainan, eta han utzi dituen guraso eta senitartekoengan. "Ondo daudela esaten digute, baina guk beldur eta pena handia sentitzen dugu haiengatik", esan du Omelchenkok. Amaren itzultzaile lanak egiten ari da, euskaraz.

Otsailaren 24an Errusiak Ukraina inbaditu zuenean Ivankiven ziren, Kiev hiriburutik iparraldera dagoen hirian, autoz 80 kilometrora. Han bizi dira, han dute etxea, lana eta bizitza, lagunak. Baina aurreneko bonbak lehertu orduko alde egin zuten Prybirs'k herrira babes bila, aitona-amonengana. Senitarteko gehiagok ere halaxe egin zuten. Hantxe egon dira herrialdetik irten eta Artetxeren etxera etortzeko modua aurkitu zuten arte.

Gerraren erdian egon direnek bakarrik ez dute sufritu denbora honetan. Artetxerentzat familiakoa da Anna, ia-ia alaba, eta ikaragarri gogorra egin zaio haien berririk izan ez duen denbora tarteak. "Asteak egon naiz ezer jakin gabe; ez genekien hilik ala bizirik ziren. Hori jakin genuenean, soilik bizirik zeudela jakin genuenean, lasaitua hartu genuen", gogoratu du. "Annaren gurasoak bananduta daude, baina beti mantendu izan dugu harremana haren aitarekin, eta haren bitartez lortu genuen Anna eta Taniarekin kontaktatzea". Aitak atera zituen ama-alabak herritik, eta berak eraman zituen Poloniako mugaraino ere.

"Gerra hasi eta aurreneko lau egunak soto batean igaro genituen, ezkutuan. Gero ateratzen hasi ginen, baina tiroak entzuten genituenean berriz bueltatzen ginen azpira, eta pasatakotan igotzen ginen", kontatu du Omelchenkok. "Aurrena bageneukan ura eta argia, baina gero dena kendu zuten, eta deitzerik ere ez geneukan". Elkarri lagunduz egin zuten aurrera. "Familiakoek esan digute aste honetan [orain bi aste] itzuli dela argia, eta deiak ere egin daitezke, baina oraindik urik gabe jarraitzen dute".

Ivanenkok bihotzez eskertu nahi du hemengo familia, "hona etortzeko aukera emateagatik eta etxean hartzeagatik, Ukrainan beldur handiarekin bizi baikin". Ukrainarrez ari da hizketan, baina Artetxeri begietara begira esan du. Begiak busti zaizkio.

Omelchenko 6 urterekin etorri zen Zumaiara aurreneko aldiz uda pasatzera, Txernobyldik gertu bizi diren beste hainbat haur bezala. 2015. urtea zen, eta pandemiako bi urteak kenduta, beste uda guztiak igaro ditu hemen, eta azken bi urteetan ere harremana mantendu dute. "Egoera hau ikusita, nola ez genizkien gure etxeko ateak zabalduko?" esan du Artetxek. "Annak 6 urtetxo zituen gurera etorri zenean, eta ni seme zaharrenaz haurdun nengoen. Anna Ukrainara itzuli eta egun batzuetara erditu nintzen. Gure semearentzat arreba bezala da Anna; urtero egon dira elkarrekin".

Santelmoen ondoren, apirilaren 27an hasi da eskolara Anna, DBH1en, Zumaianen, "hara joaten direlako nire hemengo anaiak ere, Xoan eta Anei". Begirada argitu egiten zaio eskolaz eta anaietz hitz egitean.

Urtea amaitu aurretik itzuli nahi luke Ukrainara amak, Ivanenkok. Beraien etxea ondo dago, eta printzipioz lana ere badauka. Baina ez daki zer gertatuko den lanpostuekin. "Orain ari dira horretaz hitz egiten Ukrainan", azaldu du. Horren harira, alabak gaineratu du beren etxea eta aiton-amonena ondo daudela, baina osabarena ezetz, bonba batek atea eta leihoak apurtu zituelako. Hori kontatu, eta hautsi egin da.

Denak bere saminari begira gelditu dira, isilik, hunkituta. Zer pentsatua ematen du: 13 urte baino ez, eta ezezagun bati ari zaio gerraren gordinaz hizketan. Zeinen latza izan behar duen halakoak hain gazte bizi behar izatea. Zeinen injustua den.

"Mesedez, etorri"

Artetxek azaldu du medioetan gerra hotsez hitz egiten hasi zirenean deitu ziola Ivanenkori bere etxeko ateak zabaltzeko. "Mesedez etortzeko esan nien, hartuko niela libre zegoen aurreneko hegaldia, eta etortzeko". Otsailaren 24an lehertu baldin bazen gerra, astebate lehenago egin zien eskaintza zumaiarrak. Beldur zen. "Baina Ukrainan desinformazio handia zegoen, Putin-ek [Errusiako presidentea] dena kontrolatuta zeukalako, eta Taniak esaten zidan lasai egoteko, ez zela eta ezer gertatuko, beldurra eragitea bakarrik nahi zutela eta ez zela okerrera joango egoera. Beste bizpahiru aldiz esan nion etortzeko, eta ez bazen ezer gertatzen, beti edukiko zuela etxera bueltatzeko aukera. Azkena astearte batean esan nion hori, eta ostegun horretan hasi zen gerra". Hegaldiak bertan behera gelditu ziren berehala, eta mugitzeko aukerarik gabe gelditu ziren. "Ostegunean bertan hitz egin nuen, eta esan zidan aiton-amonen etxera joango zirela eta han kobertura arazoak izaten zituztela normalean".

Bizpahiru egun geroago gelditu ziren komunikatu ezinik, eta komunikazioa berreskuratu bitartean Omelchenkoren aitarekin hitz egiten zuen Artetxek. "Bananduta daude Annaren gurasoak, eta hiriburuan bizi da aita. Han argia bazuten, eta egunero mezu bidez egoten nintzen harekin, nahiz eta aitak ere ez zeukan alabaren berririk. Baina, nolabait, kontsolatu egiten ninduen harekin hitz egiteak. Txernobylgo elkartekoak ere bagara, eta egunero pasatu digute partea jakinaraziz nola dauden elkarteko umeak bizi diren herriak. Inoiz ez ziren berri onak izaten. Oso gaizki pasatu dugu, oso urduri, eta telebistari eta Interneti pegatuta egon gara. Azkenean, ordea, jarraipen hori egiteari utzi genion, sortzen zigun sufrimendua handiagoa zelako ematen zigun lasaitasuna baino".



Tania Ivanenkov 36 urte ditu. Ivankiven bizi zen alabarekin, eta bertan egiten zuen lan gerra hasi zenean. Urtea amaitu aurretik itzuli nahiko luke bere etxera. Alaba, ordea, hemen gelditzea gustatuko litzaioke.



Hamabost egun inguru egon ziren ama-alabez ezer jakin gabe, eta gero, haien lagun bat jarri zen Artetxerekin harremanetan Facebook bidez, esateko inguruko batek esan ziela bizirik zeudela eta ondo zeudela. "Jada ez zen ondo zeuden ala ez jakitea, baizik eta bizirik zeudela jakitea", gogoratu du ahots dardartiarekin. Gero beste hamar egun inguru pasatu ziren ezer jakin gabe, eta Zumaiaira apirilaren 12an iritsi baziren, astebete lehenago lortu zuen Omelchenkorekin hitz egitea. "Esan nien mesedez etortzeko, ez izateko zalantzarik, arazoa ez zela konponduko egun batetik bestera".

Gizakiaren txarrena bezala, onena ere ateratzen du gerra batek, eta Omelchenkoren aitak egindakoa da horren adibide bat, Artetxerentzat. "Annaren aitak esan zidan alabaren bila joango zela egoera nahikoa segurua zela ikusten zuenean, eta berak eramango zituela mugara. Astearte batean kasu egin zidan esateko etxeratze agindua amaitzen zenean joango zela alabaren bila, eta ordu eta erdiko bidaia zazpi orduan egin zuen, bonbek suntsitutako errepidean barrena. Gaua pasatu zuten bere etxean atsedean hartzeko, eta hurrengo egunean Poloniaraino eraman zituen autoz, jakinda berak ezingo zuela herrialdetik irten, gizonezkoek ezin dutelako. Poza sentitu nuen Anna eta Taniagatik salbu zeudelako, baina izugarrizko pena eman zidan aitak. Metro batera eduki salbu egoteko aukera, eta buelta eman eta 900 kilometro egin behar izan zituelako bere etxera, jakin gabe hurrengo egunean bizirik jarraituko zuen".

Elkartasun sare egonkorra sortzen

Ukrainan gerra lehertu eta berehala hasi ziren herrietan elkartasun ekintzak, Ukrainara bertara nahiz errefuxiatuen kanpalekuetara jana eta materiala bidaltzeko. Zumaian, esaterako, SOS Ukraina Zumaia taldea sortu zuten, besteak beste Mikel Argoitiak, Manu Gonzalezek eta Marina Protsek

–ukrainarra da azken hori–. Martxo hasieran jada garbi zuten taldeak bi helburu zituela: bat, premiako laguntza biltzea, eta hori egin dute jada –trailer osoa materialez beteta bidali zuten–. Bestea, berriz, errefuxiatuentzako harrera sarea sortzea. Horretarako, elkarte izaera hartu dute, eta hamar

lagun inguruko talde iraunkorra osatu dute. Argoitia da presidentea, "norbaiten izena jarri behar zelako", esan du. Herrira iristen diren errefuxiatu ukrainarrei laguntzea da elkartearen asmoa, baita herrialdean bertan daudenei laguntzea ere. Diru bilketa egiten hasiak dira horretarako. Gertu merkatari elkartearen bitartez hasi dute bilketa, herriko denda eta taberna batzuetan itsulapikoak jarrita. Horrez gain,

Ama-alabek, berriz, zortzi ordu pasatu zituzten mugan, ilaran, Poloniara igarotzeko zain. "Galdakaoko boluntarioei esker, autobusez ekarri zizkiguten Bilboraino, eta orain gure etxean daude", kontatu du, azken zati hori irribarretsu.

Etokizunaz

Ama-alabei ez zaie Zumaiaiko familiaren berotasunik falta. Batetik, ez direlako gutxi Artetxeren etxean: "Senarra eta biok, gure bi semeak eta gure ama bizi gara etxean". Eta orain, bi gehiago dira, zazpi. "Taniak esan dit lagundu nahi duela etxean eta esateko zer egin behar duen, baina nik argi esan nion ez zela etorri gure garbitzailea izateko". Artetxek nahi du Ivanenkok euskara ikastea, eta aurrerago lanean hasten bada, dirua beretzat gordetzea, "Ukrainara itzultzen bada beharko du eta".

Elkartasun keinu horiekin guztiekin hunkituta dago Ivanenko, eta ez bakarrik Artetxe eta haren familiagandik jasotzen ari denarekin. Zumaiairek ere beso zabalik hartu dutela sentitzen du, eta pertsona "onak" direla hemengoak. "Herritarrak oso detaile politak edukitzen ari dira", gaineratu du Artetxek. "Esaterako, aurrekoan arropa erostera joan ginen ez zeukalako, eta dendariak ez zigun ezer kobratu nahi izan, eta berdin ile-apaintzaileak".

Kostatako galdera izan da, baina azkenean bota du kazetariak: etorkizunean non ikusten du Ivanenkok bere burua eta alabarena? "Ettxera itzuli nahi dut, baina alaba Zumaian gelditzea nahi dut, hemen ikastea eta bizitzea", erantzun du.

Lagunak Kievera, Estoniara, Espainiara... joan zaizkio Omelchenkori, baina iritsiko da berriro elkartuko diren eguna. "Orain pena handia daukagu, baina dena konponduko da", esan du gaztetxoak. Bizitza osoa aurretik duenaren indarra da.

Elkarrizketan zehar behin baino gehigotan egin die ihes denei negarrak. Gero, paolbidean, haizeak aurpegian jotzen duen bitartean eta egin gabe utzitako galdera mingarri guztiez pentsatzean, burutazio bat gailendu da: baduela halako duintasun berezi bat taberna bateko mahaiaren bueltan lau emakume negarrez egoteak, eta negar malkoak sikatu, eta hizketan eta bizitzen jarraitzeak.

OMELCHENKOREN AITAREN LAGUNTZA AZPIMARRATZEKO IZAN DA ARTETXERENTZAT

ESKOLAN HASI DA JADA OMELCHENKO, ETA IVANENKOK EUSKARA IKASTE NAHI LUKE ARTETXEK

elkarteak sortu ditu bere kontu korrontea eta Bizum kontua, eta horien bitartez ere eman dezakete dirua herritarrek (ES88 3008 0172 09 4641672425 eta Bizum kodea: 00507).

Elkarteak izango du lana, otsailaren 24tik gutxienez hamahiru pertsona iritsi baitira Ukrainatik Zumaia. "Etxe batean zazpi ukrainar daude, baina maiatzean ezingo dute jarraitu han, eta ea zer gertatzen den", kontatu du Argoitiak.

Horregatik, norbaitek baldin badauka etxebizitzaren bat libre eta pertsona horiei uzteko prest balego, elkartarekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Gonzalezek esan du bildu direla udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunekin ere, "gure asmoen berri emateko". Argoitiak gaineratu du boluntario sarea osatzea proposatu zietela haiek. "Arrazoia ere badute, askotan,

etortzen direlako errefuxiatuak gure herrietara, baina ez dutelako hemengo inor ezagutzen, eta ezin dutelako integratu. Horregatik, zumaiairei eskatu nahi diegu kolaboratzeko beren denborarekin edo eskaintzeko dutenarekin. Ingeleseiz dakiela batek? Bada, bisita ditzala astean behin. Euskarako eskolak emateko prest dagoela beste bat? Bada, hori ere astero elkartu dadila batzuekin".

"Kosovon aurrekari arriskutsua ezarri zen, eta hori da Putinen argumentua"

JUANJO ALVAREZ NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUAN KATEDRADUNA

Gatazka eta gerra guztien atzean arrazoi geopolitikoak egoten dira, eta garrantzitsua da gizarte orok horiek ulertu eta horiez hausnartzea, iritzi kritiko sendoa osatu ahal izateko. Juanjo Alvarez (Zumaia, 1964) nazioarteko zuzenbide pribatuko katedradunak BALEIKERI zerrendatu dizkio beretzat Ukrainako inbasioan kontuan hartzekoak diren gakoak.

Gerra honen jatorria non kokatzen duzu? Izan ere, sinpleegia da esatea hauek onak direla eta horiek gaiztoak, ezta?

Errusiak egin duena erabateko inbasioa da, eta Ukraina garatzen ari den defentsa legitimoa da Nazio Batuen gutunean legitimotzat hartzen den indarkeria-agertoki bakarra. Oinarri horretatik abiatu behar da. Baina, hortik aurrera, eta Putin [Errusiako presidentea] tiranoak merezi dituen balorazioetatik harago, XXI. mendeko tsarra baita, historiari begiratu behar zaio, eta gertuko historiari: Kosovori.

Zergatik Kosovori?

1990eko hamarkadan, nazioarteak, AEBek hala nahi zutelako, Kosovori independentzia onartu zioten, nahiz eta Jugoslavia ohiaren eszizioari amaiera eman zioten Daytoneko akordioek espresuki zioten ezinezkoa zela hori onartzea. Hau da, osagai



etnikoan soilik oinarritutako independentzia planteamendu bat legitimatu zen Kosovon, eta aurrekari arriskutsua ezarri zuten. Gogoan dut gerora neuk askotan esan dudala hori. Bada, Errusiak argudiatzen du Kosovon hori onartu zenez, ziilegi dela Donbassen gauza bera egitea. Herritarrei galdetzea eskatzen du ea nahi duten independentzia, eta baietz esaten badute, onartzea, Kosovon egin zen bezala. Proposamen horri ezezkoa eman zion nazioarteak, eta Errusiak inbasioarekin erantzun du. Astakeria onartezina da, baina

"DONBASSEN
KOSOVOKOA EGITEA
ESKATU ZUEN ERRUSIAK,
ETA EZEZKOA
INBASIOAREKIN
ERANTZUN DU"

aurrekaria hor dago, eta ez du batere laguntzen.

Putinek esaten du bere lurraldearen osotasuna ere defendatzen duela...

Berlingo horma erori zenetik, zentzurik ba al du Itun Atlantikoari eusteak eta Europako Batasunean sartzen den estatu orok NATOkoa izan beharrak? Alemaniak 50 buru nuklear ditu Moskuri begira, NATOk jarriak. Zertarako? Hizkuntza beliko horretan, Putinek dio bere lurralde osotasuna defendatzen duela. Mendebaldeak gauza bera egin genuen, Irailaren 11ren ondoren, Irakera eta Afganistanera joan ginenean, esanez terroristen bila eta gure lurraldearen osotasuna defendatzera gindoazela. Astakeria bat da mutur batean zein bestean. Ez du justifikatzen Ukrainan gertatzen ari dena, baina aurreko hori guztia aztertu egin beharko litzateke; ez baldin badugu egiten, beste edozein unetan gerta daitekeelako hau.

Gerra eragotzi zitekeen diplomaziarekin?

Gerra geldiarazteko argudioak bilatu behar dira, eta diplomaziak baditu, eta ni ez nago ziur argudio guztiak erabiltzen ari direnik. Gerraren aurreko guztia, urte askotan egindakoa, hartu behar da kontuan. NATOren jarraipen akritikoa egin dute nazioarteko komunitateak eta Europako

Batasunak –Frantzia kenduta– eta ulertzeko zaila den mugimendu bat egon da, agresibitate isilekoa. Putini hauspoa eman diote, biktima gisa jarrita eta koadrilakterioan zokoratuta. Gero, Putinek erreakzionatu du erreakzionatu duen bezala. Mendebaldeko diplomaziaren planteamendu guztia manikeismoan oinarritu da: errusiarrek gaiztoak dira, eta baztertu egingo ditugu, eta hurbilago jarriko dugu NATOren muga. NATO erakunde militarra da, defentsakoa bakar-bakarrik. Zentzua du Varsoviako Itunaren ondoren, bi Alemaniak elkartu ondoren, harresia desagertu ondoren, Sobietar Batasuna desagertu ondoren... iparrik gabeko planteamendu geopolitiko horrekin jarraitzeak? Nik ezetz uste dut.

Hortaz, gerra nahi zuten bateren batzuek?

Gerra, edo gutxienez, baldintzak ezartzea hizkuntza autoritario bat erabilita. Gerra hotza esaten zaiona da: armamentu-gaitasuna berrelikatzen da, ustez gerrarik egon ez dadin. Eta, bat-batean, gidoia hautsi egin da, Putinek esan baitu: ausartu zaitez dimentsio horretan sartzera. Alfa arren planteamendua da, argi eta garbi. Nik uste dut diplomaziak beste modu batera jokatu behar zuela. Frantziako Atzerri Ministerioaren egoitza izan zen diplomazia erabili zuen bakarra: diplomazia profesionala, indartsua eta garrantzitsua dauka hark. Inbasioa hasi aurretik esandako guztia errepasatzen badugu, hori saihesten saiatzen zen bakarra zen Frantzia.

Ukrainari armak emateaz zer iritzi duzu?

Oso kontu delikatua da ea arrazoizko estrategia den ala ez Ukraina bere defentsa legitimoan berrarmatzea. Niri eztabaida edo dilema etikoa eragiten dit, biztanleria zibilaren sufrimendua ikusten dugulako, eta Europako ateetan bizitzen ari garelako. Izugarritzko ezinegona eragiten dit. Baina, funtsean, berrarmatze horren atzean, beste mota bateko interes geopolitikoak daude, eta galdera da: zergatik ez da beste batzuetan egin? Zergatik ez Sirian, adibidez? Nik uste dut konponbidea ez dela arma gehiago jartzea. Arazoa da geopolitika ahultasun eta sendotasun terminoetan neurtzen ari dela; berriz ere, matxismoak, muskuluarekin, gihar militar gehien nork duen erakutsita. Hori al da egoera geldiarazteko modua?

Argi duzu negoziatu egin behar dela.

Bai. Orain premiazkoena da mekanismo guztiak aktibatzea inbasioa gelditu dadin. Norbaitek dioenean errusiarrek eskatuko dutela Donbassi buruz negoziatzeko, nik diot: beno, Kosovo aurrekari bat da, eta zer nahi duzu, bada? Zer argudiorekin ukatuko duzu Kosovon egin zenuen erreferendumaren antzeko bat egotea, eta gero, ehuneko

"MENDEBALDEKO
DIPLOMAZIAREN
PLANTEAMENDU GUZTIA
MANIKEISMOAN
OINARRITU DA"

botoen %90etik gora independentziaren aldekoak badira, hori ez onartzea? Nik uste dut Putinek inoiz ez duela pentsatu Ukraina osoa hartzea eta hura desagerraraztea estatu bezala, eta gainera halaxe esan du, baizik eta gobernu kentzea, Mendebaldeko Iraken saiatu zen bezala, edo Afganistanen eta beste toki askotan egin zuen bezala. Bada, Putinen asmoa hori zen, gero lortzeko Donbass Krimea bezala izatea.

Horretarako eraman du guztia muturreraino, eta orain, gerra azkar bat gerra aerobikoan transformatu duela uste dut.

Finlandiak eta Suediak NATOn sartzea eskatu dute orain...

Akzio-erreakzio mekanismoa da, defentsakoa, oso deigarria, esaten ari zarelako arlo militarrean ez zarela fio Europako Batasunaren babesaz, eta desegokia iruditzen zait momentu honetan planteatzea hori. Errespetatzen dut, baina ez dut bat egiten.

Zer da gakoa zuretzat?

Gerra bezalako haustura historiko baten alde on bakarra da reseteatzeko aukera ematen duela. Eta Europako Batasunean pentsalariren bat balego, uste dut linea horretan pentsatu beharko lukeela; ez militarki indartsuago eginez. Denbora beharko da, baina modu bakarra da Europak Errusiarekin ere harremanak abiatzea. Egin dugu Turkiarekin, Txinarekin, Israelekin eta beste hainbatekin. Eta Errusiarekin ez? Eta ez da beldurragatik, bizikidetzat baketsu eta ordenatu baterako bide bakarra delako baizik. ■

Ikasgaiak kazuela artean

Ibon Uranga, Sukaldaritza irakaslea

Sukaldaria eta sukaldarien irakasle. Ibon Uranga Larrañagak Madrilen ikasi zuen ofizioa, eta urte askoan Etxe Ona jatetxean lan egin ondoren, 1990eko hamarkada amaieran sukaldaritzako irakasle bihurtu zen. 2007tik egiten du lan Leioako Ostalaritza Eskolan. Irailean egiten den Olarro Eguneako sortzaile eta antolatzaileetako bat ere bada.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Txikia zenetik ibili da Ibon Uranga (Zumaia, 1963) sukaldaritza munduan. 7 urte zituela zabaldu zuten bere gurasoek Etxe Ona jatetxea Zumaian, Axular ibiltokian –gaur egun Bidabeazpiko etxebizitzak dauden

lekuan–, eta ume bat besterik ez zela ere sukaldean bueltaka ibiltzen zela du gogoan. "Etxean beti sukaldean sartuta nengoen. Etxe Onatik sukaldari asko pasatu ziren, eta harreman ona nuen haiekin. Gure ama ere sukaldari ona zen, Getariako amona ere sukaldaria izan zen, eta esan daiteke bide bati jarraipena eman niola".

Prestutasuna eta kazuelen artean mugitzeko abilezia nabarituko zioten gurasoek Ibon gazteari. Sukaldaritzak ikasi nahi ote zuen galdetu ziotenean, baiezkoa eman eta 14 urte besterik ez zituela maletak egin eta Espainiako hiriburura joan zen ikastera. "1978an joan nintzen Madrilerara, eta bost urtez egon nintzen bertan ikasten, 1983ra arte. Garai hartan Madrilen zegoen Espainiako sukaldaritzako eskola bakarra, eta orduko sukaldari mitikoak hango irakasleak ziren. Han egoteko zortea izan nuen", dio.

Bost urtek askorako ematen dute, eta Madrilgo Casa de Campon kokatutako eskolan denetarik ikasi zuela dio. "Normalean patatak zuritzen hasten zinen, eta bosgarren urtean jatetxea kudeatzen. Errezetak egiten edota kartako jakiak prestatzen ikasten zenuen". Sortu zuen lehen errezeta zein izan zen ez du gogoan, "baina bai lehen egun hartan bi zaku patata zuritu nituela!".

Ikasi bakarrik ez, lagun onak egiteko aukera ere izan zuen Urangak Madrilen. "Lagun oso onak egin nituen han, eta orduko bi lagun Olarro Egunean etortzen dira Zumaia laguntzera. Garai hartan elkar ezagutu genuen sei edo zazpi lagun urtean bitan-edo elkartzen gara oraindik ere".

Sukaldaritzako eskolan ikasitakoa familiako jatetxean praktikan jartzen zuen Urangak asteburuetan etxera bueltatzen zenean. Etxe Onak sona handia zuen garai hartan. "Zumaia ez zen oso herri turistikoa, baina bazuen bere xarma, eta beti etortzen ziren eibartarrak, madrildarrak, Zaragozakoak... Etxe Onan ezkontza asko izaten ziren, bankete asko, baina baita kontzertuak terrazan ere. Denetarik egin behar izaten genuen, eta goizean irekitzen genuenetik gauean itxi arte egiten genuen lan; behin sukaldean ixten



irrimarra



genuenean, barran lan egin behar izaten genuen. Lehen hala izaten zen".

30 urteko bidea egin zuen Etxe Ona jatetxeak, 1970ean ireki zutenetik 2000. urtean saldu zuten arte. Jatetxearekin jarraitzeko proposamena ere izan zuen esku artean Urangak, baina uko egin zion. "Sukaldaritzan nagoenetik izan dudana presio une handiena izango zen. Jatetxe bat eramatea gauza handia da, eta familia baduzu oraindik eta gehiago. Ostalaritza eta familia uztartzea oso zaila da: familiarekin egon nahi duzu, lagunekin ere bai, eta gauza desberdinak egiteko gogoia ere izaten duzu. Ordurako irakaskuntza probatuta nuen, eskaintzari uko egin, eta hezkuntzaren bidea hartzea erabaki nuen".

1989an egin zuen Urangak lehen saiakera irakasle bezala. "Parisen nengoen gure aitaren lehengusu baten jatetxean lanean. Han nengoela lagun batek deitu zidan Santo Domingo de la Calzadako (Errioxa) sukaldaritza eskolan lan egin nahiko ote nuen galdezka. Irtenbide bat zen, zerbait berria egiteko aukera, eta baiezkoa eman nion". Hiru urtez aritu zen eskola horretan lanean, "nekatu nintzen arte. Irakasle izateari utzi nion, eta etxera bueltatu nintzen lanera". Esperientzia, ordea, ez zen txarra izango, urte batzuk geroago berreskuratu zuen eta. "Sukaldari bezala badakizu eguna noiz hasiko duzun, baina ez noiz bukatuko den. 1992an ezkondu nintzen eta umeak izan genituen. 1997an hezkuntzara bueltatu nintzen, eta asteburuetan etxera itzultzen nintzen jatetxean lan egitera. 2000. urtean saldu genuen Etxe Ona, eta ordutik irakasle nabil". 1999an oposizioak gainditu zituen, eta Santo Domingo de la Calzadan eta Llanesen, Asturiasen, aritu ondoren, 2007. urtetik Leioan (Bizkaia) ematen ditu klaseak.

Urtero 550 ikasle izaten dituzte Leioako Ostalaritza Eskolan. Azken urteotan fama handia hartu duten telebistako sukaldaritza saioek mesede handia egin dietela dio Urangak. "Jende askok ezagutu du sukaldaritza saio horien bitartez. Gure eskolan gazte askok probatzen dute, nahiz eta gero batzuek utzi egiten duten". Sei urteko karreran ikasleek denetarik ikasi behar dutela dio. "Niri sukaldari bezala bigarren platerak egitea gustatu izan zait beti; arraina, gehienbat. Baina irakasle nagoenetik denetik egin dut: lehen platerak egiten irakatsi dut, bigarren platerak, erosketak egiten ere ibili naiz, gozogintzan ere bai urte askoan, eta orain haragi tailerreko arduraduna naiz. Dena egitea ere polita da, aberasgarria da, bestela aspergarria izango litzateke. Hainbeste urteren ondoren esperientzia hartzen duzu, eta hori ikasleek eskertzen dute".

Uranga damu da, ordea, Gipuzkoan sukaldaritza eskola publikorik ez dagoelako. "Bizkaian bi dituzte eta Araban bat. Gipuzkoar batek ez al du eskubiderik bere lurraldean sukaldaritza ikasteko?". Basque Culinary Centerrek, ordea,

Ibon Uranga Larrañaga

- **Adina:** 58 urte.
- **Ikasketak:** Ostalaritza eta turismoko goi mailako teknikaria.
- **Lanbidea:** Sukaldaritza irakaslea.
- **Zer jaki duzu gogokoen?** Denetik jaten dut, nahiz eta arraina dudana gustukoan.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Ibiltzea gustatzen zait, eta orain gutxi deskubritu dut egur taila. Asko gustatu zait, eta arratsalde asko egurra lantzen pasatzen ditut. Erlaxatu egiten nau.

Gipuzkoan du egoitza. Urangak ez zuen hasieran BCCren izaera ondo ulertzen: "Ez zitzaidan ondo iruditzen erakunde publikoek dirua jartzea, eta gero haren kudeaketa erakunde pribatu bati ematea, Mondragon Unibertsitateari, alegia". Hala ere, denentzat lekua dagoela uste du.

"Ikusten dut BCCk bere bezeroak dituela, eta guk gureak; osagarriak direla beraiek ematen dutena eta guk ematen duguna".

Sukaldaritza klaseak ematen ditu, baina bere egunerokoan, lanean zein etxean, sukaldeetatik kanpo egoten dela dio. "Niri sukaldean ibiltzea asko gustatzen zait, baina onartu behar dut etxean emazteak kozinatzen duela. Batik bat elkartean aritzen naiz; urte askoan elkartean bazkaldu izan dugu familian". Olarro Eguneko edo Euskal Jai Eguneko herri bazkariak prestatzeko lanetan ere aritu da Uranga urte hauetan guztietan. Ehunka lagunentzako janaria prestatzeak beldurrik ez omen dio ematen. "Lagunekin banago ez dut beldurrik izaten; bakarrik egongo banintz, desberdina izango litzateke".

Olarro Eguneko sortzaileetako bat ere bada Ibon Uranga, Agustin Larrañaga, Inaxio Oriden eta Joxe

Mari Elustondorekin batera. "2003an Erdi Aroko azoka bat egin zen Zumaian, eta postu bat jarri genuen laurok; frantziskotarrez jantzita, egun osoan egon ginen lanean. Afaltzean berotu egin ginen: Mutrikun berdel eguna badute, Getarian antxoarena, Orion bisiguarena, eta gu olagarroak izanda, Zumaian olagarro eguna antolatu behar zela pentsatu genuen". Proposamena aurkeztu zuten Udalean, baita hark onartu ere. Hor hasi ziren komeriak laukotearentzat. "Ez genekien nola antolatu behar genuen, zer egin behar zen, zenbat olagarro erosi behar zen. Egia esan, paginas amarillasa ireki eta olagarroa saltzen zuten enpresetara deika hasi ginen. Ni orduan Llanesen nengoen irakasle, eta hitz egin nuen enpresari esan nion olagarroa hara eraman beharko zuela. Llaneseko ikasleekin aritu nintzen olagarro brotxetak prestatzen". Lehen urte hura zoramena izan zela dio, eta haren ondoren aldaketak proposatu zituzten. "Olarro Egunak arrakasta badu da herriko elkarteei parte hartzera gonbidatu zaielako. Lana egin nahi duen guztiarentzat zabalik dago, eta hori da Olarro Egunaren arrakasta". ■



NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali maiatzaren 20a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Apirileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 17. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Maria Jesus Albizu** bazkidea izan da irabazlea.





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

Aurrematrikula Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!

📞 943-36 46 00

www.lhusurbil.eus

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9tik 27ra

IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOIA



EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



NAZIOARTEKO MERKATARITZA

GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA JARDUERAK



ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala araztasdez.

ADMINISTRATIO KUDEAKETA



SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

GOI MAILAKO ZIKLOAK

BEKO MAILAKO ZIKLOAK

www.uni.eus

Otsola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idozkaritza@uni.eus | uni.eus

13.ZENBAKIA-2022-MAIATZA

GUKA



AMAGOIA GURRUTXAGA ÉTA ANJEL LERTXUNDI

KULTURAREN BEHARGINAK



Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotza

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO


MAXIXATZEN

KH
UROLA KOSTAKO
HITZA

U
UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

'KOMEDIANTE MODUAN'



ARITZ MUTIOZABAL

Gitarra zarhartxo bat det nik nere laguna / horrela ibiltzen da artista euskalduna. / Egun batean pobre, besteetan jauna, / kantatzen pasatzen det nik beti eguna. Beraien sormenetik bizi diren edo bizi nahi duten euskal langileen gorabeherak ez dira gaur goizekoak. Zortzi sokako musika tresna bera bezain zaharra omen. Iparragirreraren abestiak agerian uzten du zeinen konplexua den sortzaile baten bizitza: egun batean aparretan egon zaitezke, baina burbuilak lehertzen direnean guztia baretzen da. Egun batean pobre, besteetan jauna. Eta berriro pobre, eta berriro nabarmen, eta berriro...

Nabarmentzeko moduko ehunka altxor ditu euskal kulturgintzak bere diziplina anitzetan, azpimarratzeko modukoak diren egile, sortzaile eta interpreteei esker. Gure imajinario historiko-kolektiboan ahaztezinak diren horiek guztiak (ez naiz hasiko banan-banan zerrendatzen, baina bote-prontoan burura etorri zaizkizun horiez ari naiz), baita be-

launaldiz belaunaldi puri-purian izan diren garaikideagoak ere. Kultur ondare aberatsa du euskal komunitateak, eta horretaz harro dago herria. Horrek sona eman die sortzaileei, eta irudi publiko ere bihurtu dira zenbait. Baina, ororen gainetik, aitortu al zaie serio demonio beraien jarduna langile profesional gisa?

Iparragirre abila dala / askori diot aditzen, / eskola ona eta musika / hori hoiekin serbitzen. / Ni ez nauzu ibiltzen / kantuz dirua biltzen, / komediante moduan. / Debalde festa preparatzen det / gogoa dedan orduan. Xenpelarrek ondorengo bertsoa bota zion Iparragirreri, eskoladun trobadore gisa ikusten zutelako garaiko baserri giroko bat-bateko bertsolariek. Bertso honetan, ordea, bada zehaztapen interesgarri bat, zeinean Xenpelarrek dioen bera ez dela aritzen diruagatik kantuan, eta, pauso bat harago doa, komediante hots eginez abeslari urretxuarrari. *Komediantea, bohemioa, bibidorea, artista jendea, intelektualtxoa...* Askotan erabili izan diren goitzenak dira sortzaileak lotsago-

rritzeko edo behinik behin haien profesionaltasuna gutxiesteko. Eta, gainera, beraien lana debalde egiteko eskatu zaie maiz.

"Idazlea zen, itzultzailea, kazetaria... eta ez zeukan logela ordaintzeko lain. Logela! Ez pisua, eta hala ere. Kontua da haren egoera bertsuan bizi ginela euskararen langile autonomoak". Miel A. Elustondo kazetari eta idazle azpeitiarrak azaldu zion Berria egunkariari iragan azaroaren hasieran, Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkartek bere bigarren batzarra egin berritan. Euskal kulturgileek sortu duten elkarte da Lanartea, beraien egunerokoan topatu izan dituzten arazo administratiboak aldatzeko premiak bultzatuta. "Lege absurdoak, araudi lotsagarriak, xantaiak, abusuak, bazterketak, murritzeta ekonomikoak... Euskaraz sortutako kulturaren barruan dauden injustiziek batzen gaituzte", nabarmendu zuen artikulua hartan Elustondok.

Iraultza baten hasiera da, egun pobrerik egon ez dadin gitarra zahar horren akordeetan. ■

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:



NEURRIRAKO JANTZIA JOSTEN

Amagoia Gurrutxaga eta Anjel Lertxundi

Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkartea urrats sendoak ematen ari da azkenaldian, euskal kultur sortzaileek dituzten eguneroko premiei erantzuteko. Amagoia Gurrutxaga kazetari azpeitiarra da elkarteko koordinatzailea, eta Anjel Lertxundi idazle oriotarrak, berriz, bizitza osoa darama kultur sorkuntzan.

Testua: **Aritz Mutiozabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**

Elkarrekin ailegatu dira hitzordura, kontatu nahi duten guztia aurrez errepasatzen aritu balira bezala; azaldu beharreko ezer ez ahazteko, akaso. Zarauzko Frantziskotarren eliza aurrean elkartu eta ondoko sarreratik komentuko liburutegi ederrera igo dira labirinto itxura duten eskaileretatik. Anjel Lertxundi (Orio, 1948) idazleak ordu aspertu luzeak emanak ditu bertan, gaur egun hautsez estalita dauden beste mende batzuetako liburuak aztertzen. Amagoia Gurrutxaga (Matxinbenta, Azpeitia, 1971) kazetaria hirugarren aldia da bertaratzen dena. Nolanahi ere, ez batak, ez besteak, ezin diote espazioaren egurrezko egitura liluragarriari so egiteari utzi. Hogwarts txiki bateko galeria batean murgildu direla dirudi; inor ez litzateke harrituko edozein momentutan Harry Potter agertuko balitz. Fantasiaz haraindi, euskal kul-

tur sortzaileen eta kulturaren errealitate gordina mahai gainean jartzeko borondatez etorri dira gonbidatuak. Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkartea sortzeko beharraren eta ematen ari diren pausoen berri ematera. Izan ere, Gurrutxaga da elkarteko koordinatzailea, eta Lertxundi ohorezko bazkideetako bat.

Euskal sortzaileen aspaldiko beharrei eta arazoei erantzuteko sortu da Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkartea. Indartsu ekin dio bere bideari. Bazen garaia!

Amagoia Gurrutxaga: Bai, zer esango dugu ba guk! Gero eta gehiago hitz egiten digute kultur industriaz eta horrelako kontzeptuez, baina urteak joan eta urteak etorri, jendeak ikusten zuen industria horren lehengaia –alegia, sortzailea edo interpretaria– ez zela kontuan hartzen, eta horien bizi baldintzak geroz eta



prekarioagoak zirela. Horri erantzun nahian sortu zen Lanartea. Esan dezakegu duela urtebete edo hasi dela topera, pertsona bat horretara jarrita [Gurrutxaga bera da koordinatzailea], eta beste hainbat lagunen babesarekin eta laguntzarekin. Egia esan, lan ildo dezente ireki ditugu, eta gogoz nahiz indarrez ekin diogu.

Kultura beti izan da alor prekarioa. Euskaraz eta euskal sortzaileentzat, are gehiago?

Anjel Lertxundi: Denok dakigu zein den gure hizkuntzaren egoera; gutxieneko pertzepzio bat bederen badugu. Gure hizkuntzak dituen hiltunen eta beste hizkuntzek dituzten hiltunen artean desberdintasun handia dagoela ikusten da, eta horrek sekulako arazoa eragiten du. Kontua da guk ezin dugula amestu beste horiek duten funtzionamendu bera izatea, ugaritasunak ematen dielako indarra. Gure indarrak, berriz, izan behar du gure bitartekoak benetan geure neurrira ondo egokitzea, eta ez gezurre-tako imitazioak eginez, alegia, hizkuntza handi bat bagina bezalako aldarrikapenak eginez, kontuan izan gabe benetako egoera zein den. Benetako egoera horri egokitu behar dizkiogu diskurtsoak, ez mimetismo hutsez alboko hizkuntzei begiratuta. Horrela jokatz gero, galduta gaude.

A.G.: Diglosiaren kontua daukagu hor. Legez guztiok gaude babestuta, baina denok dakigu errealitatea zein den, eta eskubide erabatekoak zein hizkuntzaren hiltunek dituzten ziurtatuta eta zeintzuek ez. Guk ez ditugu, gurea hizkuntza gutxitua delako. Kultur politikan ere antzeko zerbait gertatzen da: geroz eta gehiago ari gara ikusten hemen aktibatzen diren kultur politikak ez direla hemen dauden hizkuntza guztientzat. Maila berean egongo balira bezala aurkezten dituzte, eta Anjelek esan duen bezala, ez dute zerikusirik. Ez gaude maila berean, ezin dugu irrealitate horretatik abiatu. Eraikitako kultur politika horiek ahula dena desagertzera eramango dute, eta indartsua dena, gehiago indartzera. Uste dugu egoera horretan gaudela, eta horregatik eskatzen dugu euskararentzako estatus propioa.

A.L.: Indartsuaren eta ahularen artean ez dago berdintasunik; ahula da premian dagoena. Aktibatu behar badira politika batzuk, ezin

zaizkio berberak aplikatu ahulari, politika be-reizi eta espezifiko batzuk baizik, indartzeko eta arnasa emateko. Osasunarekin gertatzen den gauza bera da: ni sano baldin banago, ez daukat laguntzaren beharrik; premia duenari eman behar zaizkio botikak edo baliabideak. Antzekoa gertatzen da gure kasuan ere. Dena den, ahul egoteak ez du esan nahi gaixo gaudenik; oso sano gaude, baina defizit handiekin.

Defizit horiei aurre egiteko sortu zen Lanartea. 2019an egin zuen lehen biltzarra, eta urtebete geroago eratu zen ofizialki elkartea. Bere estatutuetan, besteak beste, kotizazio sistema arrazional bat bultzatzea eta euskaraz sortutako kulturaren legea lortzea zehaztu zenituzten.

A.G.: Hala da, bai. Espainiako estatuan oraintxe ari dira Euskal Artistaren Legea lantzen, eta jende asko ari da hemendik horri begira. Zer gertatzen da? Hor egiten ari direla jantzi bat Espainiako kulturaren gorputzarentzako, haren neurrira, eta guk badakigu, esperientziagatik, gure gorputza ez dela inolaz ere haien neurri berekoa. Beraz, guk exijitzen duguna da geure neurriko jantzi bat egin behar dela, eta jantzi horretan kontuan eduki behar dela kotizazio sistema bat gure errealitatera egokituko dena, baita gure kulturaren gaur egungo ahaletara eta beharretara ere. Horregatik esaten dugu geuretik eta geurearentzako egin behar dugula [legea]. Adibide bat ematearren: Espainian bertsolariak ez dira existitzen, eta, aldiz, euskal kulturaren sisteman bertsolariek pisu handia dute. Beraz, atera kontuak! Izugarritzko arazoa dute gaur egun bertsolariek, ez dakitelako non eman behar duten izena alta ematean. Guk, lehenik eta behin, gure gorputzaren neurriaren kontzientzia hartu behar dugu, eta, gero, horren neurrirako jantzi bat josten hasi. Horretan ari gara.

A.L.: Bertsolarien kasuan agerikoak dira desberdintasunak, baina ofizio berean ere badaude. Idazlea naiz ni, eta alderatzen baditugu irakurle posibleen proportzioak hizkuntza batean zein bestean, bada... Aztertze modukoa da gutxienez. Beste kontu bat da zein diren arazo horren irtenbideak, baina ezin ditugu politika berak aplikatu, batzuek aukera dutelako 300.000 irakurlerengana iristeko –hori jada gaztelaniaz



"Geroz eta gehiago ari gara ikusten hemengo kultur politikak ez direla hizkuntza guztientzat"

"Gure gorputzaren neurriaren kontzientzia hartu behar dugu, eta horretarako jantzi bat josten hasi"

"Argi dugu duindu egin behar dela euskarazko kultur sistema eta konplizitateak eraikitzen segiko dugu"

ere ez da gertatzen— edota halako edizioak kaleratzeko, eta guk, berriz, ez dugulako sekula santan halakorik izango. Baina hori dena arrazionalizatzeko modu bat badago, gure neurrira, eta modu hori da arazoa elkarren artean sozializatzea. Aginteak ikusi behar du gure arazoa ezberdina dela Espainiakoarekin alderatuta, eta ezin garela integratu besterik gabe halako sistema batean, gureari geure begiekin begiratu gabe.

A.G.: Agintari batzuek jada hori esaten dute, hori ikusten dute, baina kontua da, behin diagnostiko hori eginda, zer egiten den horren aurrean, zer lege edo zer konponbide proposatzen diren. Konponbidea baldin bada guztia merkatu libreko legeen menpe uztea eta oihan horretan elkarren aurka lehiatzea, galtzeko guztiak dauzkagu. Arazo espezifikoak baldin baditugu, asma ditzagun elkarrekin konponbide espezifikoak. Badugu kalitatea eta sortzeko gogoia duen jendea Euskal Herrian, eta denek ez dute hortik bizi nahi, baina kontua da hortik bizi nahi dutenek ere oso zaila dutela. Hamar-kadetako esperientzia duen jendea dago bere

buruari galdetzen ari dena ea nola lortuko duen jubilatzea, edo zirkuiturik ez daukana ateratako diskoa erakusteko eta jendaurrean jarduteko. Hau ez da hasiberrien kontua bakarrik; hau estrukturala da, eta alde horretatik kristoren arazoa dugu. Jubilazioa, esaterako, kezka izan zen zure kasuan, Anjel?

A.L.: Bai, noski. Nik kotizatu nuen 30-35 urte nituen garaian, eta ondoren, probatu nahi izan nuen libreki jardutea. Idazle gisa kontsideratzen dituzun lanez harago, beste lan batzuk ere egiten dituzu –gidoilari, kazetari eta abar– eta hortik bizi zara, ez liburuetatik. Hala ere, nik lortu nuen, nolabait, letren inguruko autonomia bat edukitzea, kazetaritzari eta gidoiei esker. Nik lehen adina lan egiten dut orain, baina une honetan, lehen aldiz bizitzan, nire-nireari eskaintzen diot esfortzu guztia. Orain, jubilaziorik esker, ez dut babarrunak erosteko eta egosteko zerbitzuko lanik egin beharrik. Nolanahi ere, oso idazle gutxik lortzen du hori, baita beste hizkuntzetan ere; jaten ematen dieten beste lan batzuk egiten ditu ia mundu guztiak. Baina gauza bat da hori, eta beste bat, egun osoa lanean pasatzeagatik sormenari denborarik ezin eskaini ahal izateko.

Zentzu horretan, ba al da uste okerrik gizartean sortzaileen inguruan?

A.G.: Alde batetik, badago sortzaileak eta egileak primeran bizi direnaren eta kolpe zorrikerik jotzen ez dutenaren uste orokorra. Ez da egia, inolaz ere. Izugarritzko larria izaten dute hil amaierara iristeko, beren sortzetik bizitzeko apustu egin, eta autonomoen kuota pagatuta. Batzuek, gainera, ezin dute kuota hori ere ordaindu, hilean 300 euro eskas izan arren. Bestetik, batzuek onartzen dute ez zarela horren ongi bizi, baina azpimarratzen dute behintzat gustuko duzun hori egiten duzula. Ez dugu dirutza irabazi nahi; soilik, beste edozeinek bezala, duin bizi ahal izateko gutxieneko batzuk lortu. Zertarako? Bada, gero, sortzaileek beraiek ondoen egiten dakitena egin ahal izan dezaten gizarte guztiaren onurarako.

Euskadin rokanrolak ez du inoiz dirurik emanen / Inun baina alaigoia izanen da. Topiko horrekin bukatzeko garaia da?

A.G.: Bai, bai. Daukagun tradizioa daukagu herri honetan, gure txikitasunak horretara eramaten gaituelako, eta gure sektoreari, beste inori ez bezala, duela 40 urteko militantzia maila bertsua eskatzen zaio. Profesionalizazioaz hitz egiten dugunean –eta ez gara autonomoez bakarrik ari–, ia sistematikoki auzitan jartzen da beren sormen edo interpretazio lanagatik diru bat kobratzen duen jendea. Militantziagatik eta ekarpena egiteko kontzientzia horregatik, askotan egiten dute doan lana, baina beti egin behar al da? Zertaz biziko dira, orduan? Hori da galdera: beti egin behar da doan? Beste lanbide bat daukan jendeak bezala, bakoitzak erabakiko du zertan militatu. Iruditzen zait oso injustua dela sektore honetako jendeari sistematikoki doan aritzeko eskatzea eta, gainera, sekulako kalitate maila nahiz dedikazio maila eskatzea. Garai batean, militantzia ulertzen zen gauzak debalde egitearekin; bada, agian, gaur egun, sektore honetako parte sentitzen garenontzako, militantzia da kobrantza eskatzea. Kristoren aurpegi txarrak ikusiko ditugu, eta ez gaituzte ulertuko. Baina iraun ahal izateko, guk ere jan egin behar dugu.

A.L.: Hori hala da. Zure eskubideei zenbat eta uko gehiago egin, orduan eta gehiago txartzen da zure egoera. Niri ondo doakit nirean, eta oso sinpatiko portatuko naiz ezer kobratu gabe, baina atzetik datorrenari, nire baldintza berean ez dagoenari, ni aritu naizen modu berean aritzea eskatuko diote. Injustizia modu bat da atzetik datorrenarekin egiten duzun hori; oso arriskutsua da gurea bezalako sektore bateko hitzartzeetan. Solidaritatea, hain justu, beste aldetik dator, norbere eskubideak defendatze-tik.

Hor daude Euskal Idazleen Elkarteak, Bertsozale Elkarteak edota EIZIE bezalako elkarteak, baina zuek pauso bat harago zoazte, eta profesional hitza txertatu duzue. Balio erantsi hori.

A.L.: Komeni da desberdintzea. Adibidez, Euskal Idazleen Elkarteak idazleak biltzen ditu, idazleak gara bertako bazkideak eta elkarteak egiten ditu gure aldeko lan asko. Hasieran jende askok eman zuen izena elkartasunez eta kuota ordaindu zuen, agian bere bizitza osoan hiru artikulu bakarrik idatzi arren. Elkarte horrek



"Idazteaz harago, beste lan batzuetatik –gidoilari, kazetari eta abar– bizi zara, ez liburuetatik"

"Ahul egoteak ez du esan nahi gaixo gaudenik. Oso sano gaude, baina defizit handiekin"

"Elkarte bat izatetik sindikatu bat izatera alde kualitatibo handia dago, eta sindikatu bat sortzen ari gara"

batez ere gure lanak promozionatzeko jarduerak egiten ditu: literaturako aldizkari bat, jardunaldiak, eta eskoletako saioen koordinazioa. Baina elkarte bat izatetik sindikatu bat izatera alde kualitatibo handia dago, eta orain sortzen ari garena sindikatu bat da. Hori da asmoa.

A.G.: Hain zuzen ere, harremanetan gaude elkarte horiekin, baita beste diziplina batzuetakoekin ere, eta denak bat datoz: sektorea oso prekarizatuta dago, eta urteekin ez da hobera egiten ari, kontrakoa baizik. Hala, lan-kidetzarako eremu batzuk sortu ditugu jada: mahai komuna deitzen dugun bat badugu, eta hor daude oraingoz Euskal Idazleen Elkartea, EIZIE itzultzaileen elkarte, Bertsozaleen Elkartea eta Galtzagorri elkarte, eta espero dugu elkarte gehiago batuko direla laster. Hor landu dugu, adibidez, langileen eta sindikatuaren ikuspegitik oso praktikoa den eremu bat: fiskalitatea. Elkarte bakoitzaren bazkideen errealitatea kontuan hartuta, fiskalitate arloko hainbat proposamen adostu ditugu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari aurkeztu dizkiogu. Ogasun kontuak direnez, ordea, orain hori al-



dundiz aldundi aurkezteko prozesuari ekin diogu. Elkar batuta gaude, elkar laguntzen dugu eta hori da gure ustez dagoen bide bakarra, bestela izango ginatekeelako poxpolo bat piztu eta itzaliko litzatekeena. Hau arnas luzeko proiektu bat da.

Halaber, elkarreentako kideekin kontrastatzen ari gara praktika onen gida bat, diziplinaka, bakoitzak bere ezaugarriak dituelako, eta hori ari gara lantzen sektore ezberdinetako elkarrekin eta banakoekin. Zerbait fakturatu edo bere lanarekin edozer egin nahi duenak jakin dezan kolektibo bateko kide dela eta onartzen

diren baldintzak ez direla beretzat bakarrik onartzen, baizik eta gero etorriko denarentzat ere onartzen direla. Gaur egungo dinamika oso ustela da, eta hori puskatu egin behar da.

Burokrazia kontuen inguruan ezagutza falta handia dagoela sumatuta, aholkularitza nahiz formazioa eskaintzen du Lanar-teak.

A.G.: Ezagutza falta ikaragarria dago, bai, eta gainera, azken urteetan, burokrazia eskakizunak izugarri handitu dira. Anjelek nik baino hobeto jakingo ditu, segur aski. Edozer gauza kobratzeko orduan, orain tike-ta bai eta orain ez... 60 euro kobratzeko anteronak egin behar dira!

A.L.: Bai, eta datozenak! Bes-teen kontura lan egiten dutenei enpresan bertan egiten dizkiete paperak eta gestioak, eta sindikatuak ere hor daude, langileei laguntzeko. Guk ez daukagu horrelako ezertxo ere. Ni inoiz ez naiz izan bi numerotarako ere gai, eta ni naiz neure idazkaria; eromena da. Eskerrak gestorea den lagun batek laguntzen didan, eta aholkuak ematen dizkidaten bi alaba ditudan. Baina nik ezin

dut hitzaldi bat eman dudalako ez dakit zenbat paper betetzen aritu. Gogoratzen naiz Miami-ko (AEB) liburu azokara joan behar izan nuela Etxepare Institututik. Zenbat izapide bete ote nituen hiru egunetarako! Ordaintzen zizutena bai han eta bai hemen ia-ia gastatu nuen tramite kontuetan, eta ez naiz denboraz bakarrik ari, tramite horiengatik kobratzen dizkizuten tarifengatik ari naiz. Hori ikusita, ni hurrengoan ez noa!

A.G.: Azken finean, hori da lortzen dena, baita hemengo hitzaldiekin ere. Lehen esan bezala, Ogasuna aldundien eskumena da, eta euska-

raren herriak administrazio ezberdinak dituenetz, bakoitzak bere irizpideak ditu. Orduan, zuk hitzaldi bat edo proposamen bat herrialde batean aurkeztuz gero, izango duzu BEZ eta atxikipena, baina ondokoan BEZ bai eta atxikipenik ez; ikastetxe batean bada, BEZik ez, baina kultur etxean bai... Horrelako irizpide ezberdin pila bat daude gauza bera egiteko. Horren aurrean, irizpideak bateratu beharra ikusten dugu, bestela doktore tesi bat egin behar baituzu jakiteko ondo ari zaren. Autonomo kuota ordaintzeko dirurik ere ez duen jendea aholkularitza zerbitzua ordaintzen ari da, eta gauzak hala eginda ere izan dira ezustekoak. Izan ere, Foru Ogasunetara deitzen duzunean, baldin eta nork hartzen dizun telefonoa, gauza ezberdina esaten dizu. Zentzugabekeria da dena. Hori ordenatu eta bateratu egin behar da.

A.L.: Anekdotak pertsonal bat azaltze aldera: Gasteizen emandako sari bat bide, esan zidaten zergetatik libre zegoela, baina handik urtebetera autobideko bonua kendu zidaten ez nengoelako Ogasunarekin kontuak eguneratuta. Orduan galdu nituen nire egunik mada-rikatuenak leihatila batetik bestera, eta hara non esaten didaten sariaren zerga ordaintzeko nuela. Jakina, nik protesta egin nuen, eta argi utzi nien zergetatik libre zegoela eta hori egiaztatzen duen gutuna nuela etxean. Leihatilakoak erantzun zidan saria ematen zuena Eusko Jaurlaritza zela, baina hura, Ogasunarena, beste erregimen bat zela. Esan nion nahastuta zegoena ez nintzela ni, beraiek baizik, gauzek horrela funtzionatu behar ba-



zuten. Baina, azkenean, ordaindu egin behar izan nuen.

Aldundiei aurkeztu diezue zuen proposamena. Nolako bidea aurreikusten duzue? Sastrakatsua izango al da?

A.G.: Orain arte, 50 urtean ez badute ezer egin, ez dut uste presa handirik izango dutenik! Bestalde, badago detaile inportante bat: duela 40-50 urte, honetan hasten zinenak, Anjel, beste aldarte eta kontzientzia batekin abiatu zineten, beste egoera batean. Niretzako mingarria da 50 urteren buruan modu berean segitzea. Garai hartan, trantsizioa zela, oraindik

egiturak behar bezala finkatu gabe zeudela eta abar zela... Baina hamarkadak pasatu dira, eta ez dakit nik ziurgabetasuna hobetu den.

A.L.: Gauza batzuk hobetu dira: saldutako liburu bakoitzeko horrenbesteko bat ordaintzearena ziurtatu zen, ordura arte toki askotan ez baitzen halakorik egiten. Gaur egun, ez dut uste bere egileei ordaintzen ez dien argitalexterik egongo denik. Horrelako gauza batzuk lortu ziren sasoi hartan. Baina, egia da, gu oso autonomoak garela zentzu askotan, eta bakoitzak bere-berean ari dela bere txokoan. Beraz, geure artean oso koordinazio gutxi dago. Ez da borondate faltagatik, baizik eta bakoitzak bere bizitza daramalako eta elkartzea ez delako hain erraza izaten. Lanartea elkarteko bileteretan ez naiz parte hartzen ari, baina eskarmentu handiko jendea dabil, gauzak ondo lotuta utzi nahi dituen ondorengo sortzaileentzat, eta niri txalogarria iruditzen zait hori. Prozesu honetatik guztitik gehien erakartzen nauena da.

A.G.: Belaunaldi artekotasuna dago hor. Alde batetik, beteranoa den jendea dago; hau da, erretiroa gertu ikusten ari dena edo ehuneko ehun honetara jarri eta panorama nola dagoen konturatu dena. Gero, bestetik, hasiberriak daude, oraindik plazeragatik ari direnak. Baina gazte horiei eskatzen zaizkien tramite burokratikoak izaten dira 50 urte daramatzatenei eskatzen zaizkien parekoak. Burokraziak eskatzen die ez duten profesionalizazio bat, baina ondoren, ez dute inolako babesik. Zer etorkizun dauka jende horrek sistema horrela betikitzen bada? Horregatik, gure elkartea gazteen gaia gizarteratzeko ikus-entzunezko bat lantzen ari da Euskal Herri osoko zazpi sortzailerekin. Azalduko da nola heldu diren gaur egungo egoerara eta zer topatu duten; irudi erromantiko horrek zer duen egitik eta nola proiektatzen duten etorkizuna. Eta ez daukate batere argi. Gizarte honen betebeharra da hori ere ziurtatzea.

Askotan, hamar euroko esaldiekin hitz egiten dugu: "Kultura estrategikoa da". Hala bada, tratatu dezagun estrategikoa balitz bezala, zeren gero politikak egiterakoan edota gizarte bezala gauzak antolatzerakoan iruditzen zait

ez diogula estrategikotasunik aitortzen. Beraz, horretan ere eragin asmo dugu. Etorkizuna edukiko badugu kultura indartsu bat eduki behar dugu munduko herri guztiek bezala.

A.L.: Garai batean normalagoa zen erakunde publikoetako kultura arduradunak saio eta proiektuen bila ibiltzea, eta, adibidez, antzerki obra bat edo kultur ekitaldiren bat ikusten topatzea. Horren arabera egiten zituzten eskaerak. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, eta ez dut orokortu nahi ez delako toki guztietan gertatzen, baina burokratizazioak ekarri duena izan da artista, musikaria edota idazlea zerbait eskaintzera joaten hasi dela udalera, eta, orduan, udalak kudeatu egiten du hori; hau da, eskalea –udalera doan hori gutxietsi gabe–. Nolabait esateko, neure burua eskale sentitu dut joan izan naizen gutxietan. Udalak nahi baldin badu bere herriarentzat kultur ekitaldiren bat, berak bilatu behar du, eta dinamika horrek etengabea beharko luke izan. Zer da interesgarria eta ekartzeko modukoa herrirako? Eragileak beragana noiz etorriko zain egon gabe. Horrek esan nahi du entitateak baduela kultur ikuspegi bat. Tamalez, administrazioei kanpora irtete hori oso gogorra egiten zaie.

A.G.: Azken urteetan, gainera, musikariak eta antzerkilariek esaten dute hori. Kulturaren industrian bitartekariak lepo ugaritu dira, eta horiek dira, adibidez, udaleko teknikariak gonbidatzen dituztenak asteburu pasa, eta jada prestatuta dituztenak bizpahiru obratako paketeak. Gauza horiek garai batean Osakidetzan egiten ziren, eta debekatu egin zituzten. Alde batetik dago bitartekari edo promotore horien eraso, eta bestetik, euskarazkoa izateagatik kultura dela ez aitortzea. Askotan Kultura Sailetik beharrean, euskarazko kultur proposamenak Euskara Sailetik kudeatzen dituzte. Nolatan? Dirutzak bideratzen dira kanpoko kultur proposamenetara, eta ez zait gaizki iruditzen, baina guk ere kultura egiten dugu, eta gu ere unibertsalak gara.

Zatiketa bat dago hor, orduan.

A.G.: Bai, bai. Euskara euskaldunen kontua dela diote... Barkatu? Hau gizarte osoaren kontua da; ala ez al dugu nahi guztiok euskaldunak izatea? Euskaldunak ez gara eleba-



karrak, elebakarrak normalean beste batzuek dira. Beraz, hori ere etorriko da etorkizun batean, merkatua handitzea, baldin eta hori nahi badugu.

A.L.: Hori ilustratze aldera: ni literaturaz eta euskaraz ari naiz. Euskara da nire instrumentua, baina ni literaturaz ari naiz, eta literaturak hunkitzen nau. Baina, jakina, literaturak ni hunkitzeko hizkuntzak ere hunkitu behar nau. Hala ere, posible zatekeen literaturak ez hunkitzea, baina hizkuntzak bai, eta alderantziz. Orduan, gauza guztiak ez dira euskararenak, hori garbi utzi behar da. Euskararenak izan litezke dendetan hizkuntzaren erabilera sustatzeari dagozkion ekintzak, baina pakete horretan ezin duzu literaturgintza sartu, hori kultura baita.


Zeintzuk dira elkartearen hurrengo pausoak?

A.G.: Esan bezala, aldundiekin negoziatzen jarraituko dugu, hori ez baita bukatzen bilera bakarrean; horrelako gauzak oso motel joaten

dira. Beraz, alde batetik bilera horiek ditugu, eta bestetik, Nafarroa. Hangoa beste diputazio bat da, ahaztu egiten zaigun arren. Egoe-ra oso bestelakoa da han, bai erakundeei dagokienez, bai soziologikoki. Beraz, hurrengo pausoak izango dira konplizitatea eraikitzen segitzea, izan herri ekimenekin, izan diziplinekin, izan herri administrazioko eragileekin. Ziur gaude bat etorriko direla gurekin. Argi daukagu duindu egin behar dela euskarazko kultur sistema. Hortik aurrera, gu denekin elkarlanerako prest gaude. ■



Ikusi eskusiban Amagoia Gurrutxaga eta Anjel Lertxundiri egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 628m
Zailtasuna ★ ★ ★ ★ ★
Luzera 9,33km
Denbora 4ordu 19minutu

Erreferentziak
0:00 Azpeitia
0:13 Joxe Takolo
1:25 Nahargun
2:25 Haitzbakar
3:10 Miradorea
4:19 Lasao



HAITZBAKAR EZAGUTZEN

MAIALEN ETXANIZ

Azpeitiak baditu ikusgarriak diren hamaika txoko. Badira ezagunak diren lekuak, baina baita horren ezagunak ez direnak ere, eta horietako bat da Haitzbakar, Izarraitzen magalean dagoen txoko ederra. Hil honetako ibilaldi proposamena Azpeitiko plaza-tik hasiko da, eta Lasaoko tren geltokiaren parean amaitu.

Plazatik abiatuta, mendizaleak Komuntzo aldera hartu beharko du, Xoxotera igotzeko ohiko bideari jarraiki, hain zuzen. Lehen geldialdia herrigunetik gertu dago, Joxe Urbieta *Takolo* zenaren baserriaren aurrean, eta han ikus daiteke mendizalearen omenez egindako eskultura. Behin geldialdia eginda, zuzen jarraitu behar da, errepidea albo batera utzi eta mendibideari ekinez. Lehen maldak igota, Azpeitiren lehen argazki orokorra ikusiko du mendizaleak.

Xoxotera igotzeko basoa hasi aurretik, Naharguneko borda dago, eta hori izango da Haitzbakarre-
ra igotzeko bigarren geldialdi edo erreferentzia puntua. Bordaren albo batetik behera jaitsiko da mendizalea, zuhaitz ederrez osatutako basora. Horrenbestez, Xoxoterako bidea ezkerretan utzita jarraituko beharko da aurrera, eta erabat aldatuko da paisaia, baso zoragarrian murgilduko baitira mendizaleak. Arbolapea amaitzean ikusiko da aurreneko Haitzbakar, berezkoa duen edertasuna dariola. 60-70 belaunaldietako eskalatzaileek bazuten haren hor-

metan eskalatzeko ohitura, eta oraindik zabalik daude eskalatzeko bideak.

Haitzbakar atzean utzita, beheraka hasiko da mendizalea, Oranda baserrirantz, paraje zoragarri inguratuta: Pagoeta, Gazume, Hernio, Arauntza, Aralar, Txindoki... eta aurrera jarraituta iritsiko da Lasaora arte. Hango trenaren geltokiaren parean amaituko da ibilbidea.

Motzean

Izarraitzen magalean aurkitzen da Haitzbakar, eta hara igotzeko hainbat bide dauden arren, Azpeitiaren erdigunetik hasten dena da politena.

1960 eta 1970 belaunaldietako eskalatzaileek ireki zituzten eskalatzeko aurreneko bideak Haitzbakarren, eta ordutik, haren hormak eskalatzeko aukera dago. Dena den, Izarraizko kantera da jendeak eskalatzeko gehien erabiltzen duena. ■



Ikusi eskusiban QR kodea eskaneatuta Xabat Olaizola aurkezlea Aitor Unanue Lagun Onak Mendi Bazkunako kidearekin txangoan.



TELEBISTAN ERE

GUKA!

erlo

Haurrak heriotzaren aurrean



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

"Txuri bidaia bat egitera joan da". Horixe esan zion aurrekoan aita batek txakurra galdu berri zuen bere semeari. Gaur egun oraindik ere heriotzaren gaia kudeatzea oso zaila egiten zaigu. Ez gaituzte hezi heriotzaren pedagogian. Segurtasun falta handia dugu gai honetaz aritzeko eta askoz gehiago haurrekin denean. Argiak izan behar dugu.

Txuri hil egin da, ez da bidaia bat egitera joan. Pentsa haurrari bidaia bat egitera goazela esaten diogunean sortuko diogun beldurraz. Haurrari argi esan behar diogu zer gertatu den, adinaren arabera zehaztasun gehiagorekin edo gutxiagoekin. Zalantzak baldin baditu edo galderak egiten baldin baditu, egia esan eta berarekin egon informazio hori kudeatzen duen bitartean.

Era berean, doluaren errituetan parte hartzen ere utzi behar diogu. Esan zer aurkituko duen erritu eta egoera bakoitzean; adibidez, beilatokian zer ikusiko duen edo hileta nolakoa izango den, eta berak erabakitzea joan nahi duen ala ez. Beti

akonpainamendu batekin. Dena den, berak erabakitzea nola bizi nahi duen dolua. Ez badute parte hartu nahi guk egiten ditugun errituetan, beste batzuk erabaki ditzakegu elkarrekin: marrazki bat egin, eskutitz bat idatzi, loreak jaso gero hilerrira eramateko...

Hari beretik, gezurrak eta itxaropen faltsuak saihestu behar ditugu. Normalean, ez zaigu gustatzen inor sufritzen ikustea, baina batzuetan sufritzea tokatzen da, triste egotea tokatzen da, amorratuta egoten gara, eta hori beharrezkoa da. Haurrek ere emozio horiek bizi egin behar dituzte; noski, lagunduta eta bere ondoan norbait dutela. Bide batez, emozio horiek guztiak adierazten lagun diezaiokegu ipuinak erabiliz, gure sentimenduez hitz egiten eta beste adierazpen tresna

HAURRARI BEHAR DUEN INFORMAZIOA ESKAINI BEHAR ZAIO; EZ GEHIAGO, BAINA EZTA GUTXIAGO ERE

batzuk erabiliz; adibidez, marrazkiak, jolas sinbolikoa edo mugimendua erabiliz.

Haurrari behar duen informazio eskaini, ez gutxiago, baina ezta gehiago ere. Batzuetan beraiek markatzen digute zer nahi duten jakin eta zer ez, eta bakoitzak bere erritmoa dauka. Informazioa pixkanaka jasotzen badute, pixkanaka kudeatuko dute eta errazagoa izango da beraientzat.

Amaitzeko, hausnartu bere beldurrez eta errudun sentimenduaz. Haur asko errudun sentitzen dira gertatu dena ulertzen ez dutelako. Argitu behar diegu heriotza naturala dela (kasu gehienetan) eta inork ezin dugula ezer egin hori aldatzeko. Heriotza bizitzaren zati banaezin dela erakusten duten esperientziak erabili. Aitona, animalia bat, ezagun bat... hiltzen den unea aukera ona izan liteke bizitzaren eta heriotzaren zikloaz hitz egiteko.

Eta, noski, beti bezala, hausnartu zuk heldu bezala heriotzaren inguruko egoerak nola bizi eta kudeatzen dituzun, hori izango baita haurrari transmitituko diozuna. ■

Harkaitz Bastarrika

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Eibarren jaio nintzen, 1975ean, Franco hil baino zertxobait lehenago. Bartzelonan egin nituen musika ikasketak, eta garai hartan zazpi taldetan jotzen nuen batera. Denetik jotzen genuen: flamenkoa, jazza, musika latinoa, brasildarra... Hainbeste taldetan jotzen egonda ere, ez nintzen gai musikatik bizitzeko. 2008ko krisialdiaren garaia zen, eta hiri handietan gogor jo zuen. Astebururo genituen kontzertuak, baina sarreratik lortzen zenetik 20 bat euro ematen ziguten emanaldiko. Hori kontzerturako lokala erabiltzeko ordaindu behar ez genuenean. Garai hartan pizza banatzaile izan nintzen, Mercabarnan kamioiak deskargatzen ere aritu nintzen, hori ikasketak ordaintzeko eta bizi ahal izateko.

Gitarra eta baxua irakasten ditut Zumaiaiko Musika eta Dantza Eskolan. Azken 11 urteak daramatzat hemen lanean. Bartzelonan ere aritu nintzen irakasle, eta hemen, Euskal Herrian, Agurainen eta Getarian ere aritu naiz lan honetan. Bartzelonan nengoela ikusi nuen egoera oso gogorra zela. Hona bueltatu nintzen, eta bi urtez tabernari lanetan aritu nintzen. Gero, Zumaiaiko eskolatik deitu zidaten. Garai hartan TikTara sortzen ari ginen, eta garbi nuen ez nuela tabernan lanean jarraitu nahi. Musika jotzea gustatzen zait, baita irakasle izatea ere; sen hori badaukat.

Han, Bartzelonan, musika jarduera izugarria nuen, baina dirurik ez; eta hemen dirua bai, baina musikarik ez. Lagun batzuk elkartu ginen, eta erabaki genuen musika latinoa egingo genuela, baina euskaraz. Kantak nik sortzen nituen, baina moldaketak-eta denok batera egiten genituen. Kalitatezko musika egin nahi genuenez, hitzak ere kalitatezkoak izatea nahi genuen. Hainbat lagunekin hitz egin genuen horretarako. Bat Mikel Antza zen; idazlea zen, baina orduan kartzelan


zegoen, Frantzian. Letrak egiteko ezin genizkion audioko artxiborik bidali, eta sudokuen bidez komunikatu ginen: nik zenbakien bidez esaten nion zenbat silabako estrofak izan behar zuten, eta berak letrak jarrita erantzuten zuen. Letra bat heltzen zen bakoitzean, hori niretzat oparia zen.

Salsa eta musika latinoa jotzen dugu taldean. Agian orain ez da hain ohikoa izango, baina gure aitona-amonek entzuten zuten bere garaian, eta dantzatu egiten ziren herriko plazetan. Anaia oso gazte zela Ameriketara joan zen, eta hango salsa diskoak ekarri zituen etxera. 12-13 urterekin punka, salsa, jazz eta 60ko hamarkadako musika guztia entzuten nuen. Musika sortzen hasi ginenean kutsu oso kubatarra zuen, baina flamenko ukituak ere bazituen, musika arabiarrekoa ere. Gerora, hegoaldera begirako musika egin dugu. Entzun, ikasi eta esperimentatu dugunaren isla da TikTara.

Buruan sartu digute ez dakigula dantzatzen, baina rocka dantzatzen ere ez dakigu. Argentinan egon nintzenean ikusi nuen nola dantzatzen zuten rock and rolla, eta haluzinatu egin nuen. Ska ere ez dakigu dantzatzen, baina hala ere ska kanta bat jartzen badigute, han hasten gara dantzan. Musika latinoarekin ere berdina gertatzen da: son kubatar bat entzutean, kunbia bat entzutean, zure gorputzak eskatzen badizu besoak altxatzeko, listo, dantzan ari zara! Azkenean, erritmoa eramatea da.

Taldea abiatu genuenean hasi nintzen abesten; ordura arte familian-eta kantatu nuen, baina inoiz ez publikoaren aurrean. Hasieran bertigoia sentitu nuen; ez nekien eskuekin zer egin! Eskuak beti okupatuta nituen, gitarrarekin edo baxuarekin, edo perkusioarekin ere bai. Horregatik uste dut hasi nintzela marakak-eta ikasten. Baxua beste talde batzuetan ere jotzen dut, kolaborazio moduan. Hainbesteko denborarik ez dut, eta beste taldeetan baxua jotzeko neure buruari jarri nion muga zen benetan gustatu behar zitzaidala talde horrek jotzen zuen musika. Bestela, gauza puntualak egiten ditut bizipoz hori mantentzeko. ■■■





Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein?

Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.

Hizki-Marrazki



Handitik txikira

Ordenu itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:

www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari JATEETXEA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijateetxea@gmail.com



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56



Ardantzabide ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



ARDANTZABIDE TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OKINDEGIA

Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel/faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi albaitaritza

Albaitaria Itaki Gormendia

Basodi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Golez: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Lamiakidatzen: 605 72 87 07 Eltxez etxeko zerbitzua



JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA



Babesguneetako habitatak: lurraldeko tapiz preziatuenak (I)

Sarritan, Geoparkea Deba eta Zumaia arteko kostaldeko gune babestua dela esaten da, baina baieztapen hori ez da zuzena. Izan ere, legeak espazio babestuaren figura aitortzen dio, baina Geoparkeak ez du bere osotasunean eremua sailkatu eta arautzen duen araudirik. Hala ere, Geoparkeak lau babesgune gordetzen ditu, eta artikulua sorta honetan haiek zein diren eta eurekin babestu diren habitatak errepasatuko ditugu.

Estatuko Natur Ondarearen eta Biodibertsitatearen Legearen arabera, geoparkeak forma geologiko apartak dituzten lurralde mugatuak dira, garrantzi zientifiko, berezitasun edo edertasun handikoak, eta Lurraren historia geologikoaren adierazgarri. Hala ere, tokiko legeriak babes bereziko neurriak ematen ez badie, nazioartean ez dago geoparkeak kudeatzeko

Testua: **Gonzalo Torre.**

eta babesteko erregimen definitu eta partekaturik. Hala, praktikan, Unescok emandako izenak ez die babes eraginkorrik ematen.

EAEko parlamentuak 2021eko abenduan onartutako Natura Ondarea Kontserbatzeko Legeak ere nazioarteko tresnen arabera babestutako guneen artean kokatu ditu geoparkeak, baina izendatzeko prozeduraz gain, ez du eremuok arautuko dituen ezer garatu. Puntu honetan, gogoratu behar da Unescoren aterpean izendatutako beste hurbileko toki batek, hain zuzen Urdaibaiko Biosferaren Erreserbak, lege propioa behar izan zuela aitorpen hura gauzatu ahal izateko.

Sarreran aipatu bezala, hortaz, Geoparkea ez da oso-osorik babeserako araututa dagoen eremua eta, gainera, kostaldetik urrun, bere mugak ondo barruratzen dira, Izarraizko mendietan gora egin arte. Alabaina, Geoparkeko 90 kilometro koadroetako bosten bat inguruk badu natura balioak gordetzeko erregelamendu bat edo beste; hala Natura 2000 Sarekoa, nola Biotopo babestuak ezarritakoa. Zerrenda horretan, Urolako itsasadarra, Arno eta Izarraitz mendikateak eta Zumaia eta Deba arteko kostaldea daude.

Leku horietan, Euskal Herriko isurialde atlantikoko habitat adierazgarrienak topa daitezke, eta hori izan da, besteak beste, gune horiek babesteko arrazoi nagusietako bat. Hori dela eta, kapituluka, babesguneok eta haietako habitat garrantzitsuenak azalduko ditugu. Hasteko, Deba-Zumaia tarteko itsasertzeko Biotopo Babestua izango dugu hizpide.


Mendebaldera begira Andikaraerrekatik.



Flysch errepikariaren Biotopo babestua

Kostaldeko lerroan zehar hedatzen den babesgune hau 2009. urtean izendatu zuten eta 4.300 hektarea inguru ditu. Azalera horren % 87 baino zertxobait gehiago itsasoan da, eta, lehorrean, Biotopoko lurralde gehiena Deban dago. Jabegoari dagokionez, publikoak dira itsaso eta lehorrean arteko jabari publikoa eta Arantza-Aitzuri eta Galarreta-Makalalde izeneko mendi publikoak; lehorreko aldearen % 53, gutxi gorabehera. Udalen jabetzak ez dira aintzat hartzekoak, oso txikiak baitira.

Natura baliabideak antolatzeko planaren arabera, Biotopoak 7 zona motatan banatuta dago: [Sic] erreserba zona, erabilera bereziko zona, itsas babeseko zona, landa paisaiaren babeseko zona, ekosistemak hobetzeko zona, lehengoratu beharreko zona narriatua eta, azkenik, nekazaritza eta abeltzaintzako zona eta landazabala.



Zumaia eta Deba arteko Biotopo babestuaren zonifikazioa.

Mugalariak, itsasoarekin etengabeko borrokan

Egia da naturagune babestu izendatzeko arrazoi nagusia bere ondare geologiko harrigarria izan zela, baina, milaka urteko prozesu geomorfologikoek moldatutako eszenatoki horretan, garrantzi handiko habitat naturalak ere nabarmenak dira. Horietako batzuek (marearteko urradura plataformek, esaterako) ez dute parekorik Kantauriko kostaldean. Bi munduren arteko muga, bizirik irauteko bada, harraldeko eta labarretako bizidunek itsasoko eta lehorreko indar gupidagabeei aurre egin behar diete.

Zabalguneetako bizitza mareen joan-etorriaren menpe dago. Izan ere, egunean bi aldiz mareak atzera egiten du eta bertako bizidunak agerian uzten ditu, haizearen, eguzkiaren, euriaren edo ingurugiro tenperaturaren aldaketen nahierara. Egunean ordu batzuk baino ez, gorago bizi diren organismoak ia ez dira urpean egoten, eta bizimodua moldatu egin behar izan dute hezetasunari eusteko. Aitzitik, hain ondo egokituta ez dauden izakiak marearen mailarik baxuenetan agertzen dira, horietako hainbat urtean ordu gutxi batzuk baino ez, soilik marea bizi-biziki gertatzen direnean.

Haitzen gainean ez bezala, marearteko plataforman sortutako putzuetan algak dira nagusi eta ornogabeen eta arrainen komunitate zabal baten euskarri dira. Itsasoari tapakia

Harraldeetako putzuetan babestuta, ostarrenak aurre egiten dio marearen joan-etorriari.





Betibizi horia. Kolore zurixkak eguzki izpiak islatzen laguntzen dio.

Ollaostagako sega-belardiak, negu beteko egunsentian.

zurtoin lodiak izaten dituzte, barruan ura metatu eta haizeak eta gatzak sortzen duten lehorketari aurre egiteko. Behealdean, itsasoaren eragina oso handia da eta landaredi urriak lur pixka bat pilatzen den arrailetan baino ezin ditu sustraiak bota. Gorago, lauguneak sortzen dira, baita belardi txikiak ere; han urteko landare ugari dago, inguruko gazitasuna ongi jasateko gai direnak.

Bertakoek urteetan landutako paisaia

Lehorrean, itsaslabarretako landarediaz gain, sega belardiak eta

kenduko bagenio bezala, putzu hauetan urpeko bizitza agerian da, kolorez eta formaz osatutako mundu bitxia begi bistan.

Itsasoak, haizeak eta euriak itsaslabarreko arroken kontra egiten dute, eta erraz imajina daiteke haietan bizi diren organismoen irauteko baldintzak nolakoak diren. Luiziak, lurzoru urria, olatuen talka, kresala, haizeak jaurtigai gisa botatzen dituen partikulak... Hemen bizitzari eusteko oso prestatuta egon behar da eta espezie gutxi batzuek baino ez dute arrakastaz lortu.

Sarritan, kaktusen antzera, labarreko landareek adarrak eta

txilardiak dira Biotopo babestutako habitat esanguratsuenak. Kontrara, oso baso urria dago Biotopoan (lehorreko azaleraren % 5 baino ez) eta erdialdeko mendi publikoetan pilatzen dira artadiak, haltzadiak edo erkameztiak.

Naturalak baino gehiago, gure inguruko paisaia gehienak kulturalak dira; gizakiaren eskuek itxuraldatutakoak, alegia. Biotopoaren kasuan, itsasoaren mugako deskribatutako habitatak izan ezik, beste guztiek nabarmen agertzen dute aldaketa. Eta nabarmenen artean nabarmenenak, baserriei lotutako belardiak dira; izan





bazkalekuak, izan belarra hazten utzi eta ukuiluetan erabiltzeko segaz moztutakoak.

Belardi horien maneiua ez da beti modu berean egiten, baina, gehienetan, simaurtu eta urtean bizpahiru aldiz segatzen dira. Larreetan, arrauka, alka belarra eta antzeko gramineekin bat, txikoria belarra, basabitxilorea, lihoa, urrebotoiak edo hirustak agertu ohi dira. Baratzeak, fruta arbolak eta baso landaketak osatzen dute baserri inguruko landare mosaikoa.

Biotopoko habitaten aurkezpenarekin bukatzeko, txilardiak deskribatuko ditugu. Sastrakadi hauek sakonera txikiko lurzoru karetsuen (edo, batzuetan, tupatsuen) gainean hazten dira; baita baso desberdinak ordezkatzuz ere, haiek desagertu diren lekuetan. Toki bakoitzaren ezaugarrien arabera, habitataren espezie nagusia aldatu egiten da. Hala, kostako txilardi lehor atlantikoetan txilar burusoila da nagusi, txilar kaltzikoletan otatera nabaritzen da eta txilardi lehor europarretan otea da gailentzen den espeziea. Hiru mota horiek Biotopoko azaleraren % 14 inguru osatzen dute eta han-hemenka sakabanatuta ikus daitezke.


Honaino Geoparkeko babesguneen habitaten ezagutzeko lehen kapitulua. Hurrengoetan, itsas bazterretik mendi gailurretaraino itzulipurdiak eginez, kostaldeko hondartza eta estuarioetatik, barnealdeko inguru karedunetako baso eta larre garaietara hurbilduko gara. Zuen konpainian izatea espero dugu. ■■■

Sakonetako inguruek txilardiak ikusteko aukera ona eskaintzen dute.

GEOPARKEA EZ DA OSO-OSORIK BABESERAKO ARAUTUTA DAGOEN EREMUA

NATURALAK BAINO GEHIAGO, GURE INGURUKO PAISAIA GEHIENAK KULTURALAK DIRA

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretégia · asador
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaiá (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaiá, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garroa

Carlos Cifero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaiá tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

Poz bat, zulo bat



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

1936ko Gerran hildako Ignacio Lopetegi Oliden oikiarraren gorpua aurkitu dute Bilboko Begoñako hilerrian, eta asko poztu naiz; horrek akordarazi dit aspalditik baneukala zulo bat barrenean, eta zerbait idazteko ere bai.

Hedabideen¹ bidez martxoan jakin genuen Bilboko Begoñako hilerrian 1936ko Gerrako hobi komun handienetako bat aurkitu zutela, 46 pertsonaren gorpuzkiekin, eta horietako bat soinean zeraman txaparengatik identifikatu zutela: Ignacio Lopetegi Oliden zen, oikiarra, Iparragirre baserrikoa. Senideek



Ignacio Lopetegi Oliden. BALEIKE.EUS-ETIK

HARTUA

ez zekiten ezer hari buruz 1937ko ekainetik, Artxanda aldean hil zela besterik ez. Orain, DNA probak egingo dituzte egiaztatzeko, baina familia pozik da, 85 urte geroago aukera izango duelako hezurak Oikiara ekartzeko eta lurperatzeko.

Duela hiru urte pasatxo, *Baleiken* “**Beti mendea**”² artikulua idatzi nuen, 1936ko Gerra Zibileko kontu batzuekin, gure aittittaren aitaren eta anai-arreben gorabehera batzuekin. Aittittaren bi anaia gudari ibili ziren, eta horietako bat, Antonio Ibarbia, Artxandan hil zen, eta senideek haren gorpuaren berririk ez zuten izan inoiz; gure amak dioenez, hitz egin ere, apenas hitz egiten omen zen gai horretaz familian, malkoa ez zelako urruti izaten, hainbesteko nahigabearekin.

Duela urtebete inguru, ordea, berriak izan genituen: Gogora institutuak Gerrako biktimen **datu base bat**³ jarri zuen Interneten, guztien eskura.

BEGOÑAKO HILERRIKO BERRIAK, ORDEA, NIRE GALDERAK ETA ZALANTZAK BERPIZTU ETA HANDITU EGIN DIZKIT




Antonio Ibarbia Aldasoro. IBARBIA SENDIAK

UTZIA

Izena bilatuta, han aurkitu nuen Antonio Ibarbia Aldasoro; jartzen zuen Bilboko frontean hil zela, eta Oikiako San Bartolome hilerrian lurperatuta zegoela⁴. Harritu nintzen, galdetuta, horretaz inork ez zekielako ezer ere familian, eta Zumaiaiko parrokoarekin harremanetan jarri ondoren, agiri ofizialaren argazkia bidali zidan.

Agiri hori 1937ko urriaren 29koa da, eta, bertan, Oikiako apaizak, Joaquin Dorronsorok, liburuan apuntatu zuen Antonio Ibarbia Aldasoro “en la toma de Bilbao” hil zela, eta hurrengo egunean “se le hizo el oficio de sepultura en esta parroquia de San Bartolomé”. Gainera, bi lagunaren izenak



Elizako lurperatze-agiria.

(“vecinos de esta”) jarri zituen horren lekuko.

Hori jakin nuenean, galdera asko sortu zitzaizkidan, bazeudelako nire logikarekin bat ez zetozen helduleku asko, baina kontu hura utzi egin nuen bazterrean, agian aurrerago beste zerbaite jakingo nuelakoan; Begoñako hilerriko berriak, ordea, nire galderak eta zalantzak berpiztu eta handitu egin dizkit:

- 1937ko irailean, altxatuak Oikiara ere sartu zirenean, orduko apaiza, Jose Ignacio Otaegi, atxilotu eta Zumaiara eramane zuten. Ederki kontatu zuen ahotsak.eus-en Bartolo Etxabe Olidenek⁵: erreketek nondik eta nola etorri ziren Oikiara; komandanteak ia hil

zuela apaiza frontoian, denenean aurrean, pistolarekin; apaiz hark pistola bat gordetzen zuela aldarearen atzealdean, sakristauak pistola hura lurperatu egin zuela baina Bartolok berak lurpetik atera eta berriz ere ezkutatu egin zuela baserrian, teilatupean... Apaiz haren ondoren etorri zen Joaquín Dorronsoro Oikiara.

- Garai hartan, Jose Ignazio Ibarbia, Antonioren aita, zen elizaren arduraduna; gero *depuratu*⁶ egin zuten, baina familiak mantendu egin zuen elizarekin zeukan harremana eta konpromisoa, inoiz ez zion utzi lotura horri: sakristautza, elizkizunak, eliza txukuntzea eta apaintzea, kanpaiak jotzea eta erlojua mantentzea,

kanposantua... Beraz, ez da oso sinesgarria inor hilerrian lurperatu eta ibarbiatarrek ezer ere ez jakitea; gainera, non eta Oikia bezalako herri txiki batean.

- Garai hartan, hilerria orain frontoi berria dagoen lekuan zegoen, elizaren kontra, eta ez zeukan panteoirik; hildakoak zuzenean lurrian sartzen zituzten, zuloa eginda, eta inor lurperatuz gero, oso nabarmena izango zen arrastoa.
- Bilbo inguruko borrokak 1937ko ekainean izan ziren. Bilbok Burdin Hesia (gaztelaniaz “Cinturón de Hierro”) zeukan defentsarako, bueltan-bueltan, baina altxatuek zirrikituak aurkitu, gogor jo eta hiria ekainaren 19an erori zen. Antonio borroka hartan hil zen, Ignacio Lopetegirekin batera, baina lau hilabete geroago eramane zuten gorpua Oikiara. Non egon zen ordura arte? Nork eta zergatik egin zituen gorpua eramateko gestioak? Ez zait buruan sartzen Bilbon hil eta Oikiaraino ekartzea Antonioren hilotza, Bizkaia osorik zeharkatuta, hainbeste denbora

**EZ DA OSO
SINESGARRIA INOR
HILERRIAN LURPERATU
ETA IBARBIATARREK
EZER ERE EZ JAKITEA**

pasatu ondoren; berez,
logikoagoa izango zen
besteekin egin zuten bezala
Begoñako hilerrian lurperatzea,
eta agian hala egingo zuten...
Baina lau hilabete geroago
eramatea hilotza?

· Baina bada zerbait arraroagoa,
ulertzen ez dudana: behin
Oikiaraino ekartzeko erabakia
hartu eta ahalegina eginda,
hildakoa nor zen eta nongoa
zen jakinda, familiari ezer ere ez
esatea eta ez uztea familiari
lurperatzen, lan horiek beste
batzuek hartzea.

· Lurperatzearen bi lekukoak: bata,
apaizaren anaia, Jose Ignacio

Dorronsoro; bestea, Vicente
Larrañaga, altxatuen aldeko bat
Oikian, Jose Ignazio Ibarbiaren
aurkako *depurazioan* parte hartu
zuen.

Begoñako hilerriko berriak
poza eragin dit, batez ere
balioko duelako arintzeko
familia batzuen orain arteko
nahigabea, baina handitu egin
dit lehendik ere handia neukan
zuloa. ■■■

¹ Adibidez, Baleike.eus-en: <https://baleike.eus/urola-kosta/1648738936358-1936ko-gerran-hildako-Ignacio-Lopetegi-Oliden-oikiarraren-gorpua-aurkitu->

dute-begonako-hilerrian.

² Baleike.eus: <https://baleike.eus/zumaia/1553858580183-beti-mendean>.

³ Gogora Institutua: <https://www.gogora.euskadi.eus/gogora-aplikazioa/aa82-aplikazi/eu/>.

⁴ Erreferentzia honekin: AHDSS-DEAH San Bartolomé Oikina Zumaia T.3 F.57 n°6.

⁵ Hemen: <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-010-008/>.

⁶ Euskaraz, berez, *garbitzea* edo *botatzea* da. Gerran eta ondorenean, irabazleek “expediente de depuración” izenekoak bultzatu zituzten, “Altxamenduarekin” bat egiten ez zutenak udaletako eta erakundeetako lanpostuetatik edo arduretatik kentzeko.



Jaunartzea Oikian, 1944an. IBARBIA SENDIAK UTZIA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración

Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.
Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

AURREMA- TRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

* Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ELEANITZA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA ELEANITZA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA ELEANITZA
- GIZARTERTATZEA ELEANITZA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA ELEANITZA

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak euskara hutsean

- **ELEANITZA:** ziklo hauetan modulu batzuk ingelesez ogituko aukera.



ONLINE

ikasgunea.euskadi.eus

www.izarraitz.eus



CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII
Altamira auzoa z/g 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 - bulegoa@izarraitz.eus
688 716 482 - [@izarraitz_lhii](https://www.instagram.com/izarraitz_lhii)



ESKATU DOAN ZURE ZUMAIA VISA TXARTELA

**Eskatu orain zure Zumaia Visa Txartela
eta gozatu eskaintzen dituen abantailez!!**

Doakoa da

Berehalako kontsumorako kreditua eskaintzen dizu

Deskontuak, sariak, zozketak, puntuak...

Visa txartel batek dituen abantaila guztiekin

Ordaindu 3 hileko epean interesik gabe



GERTU

ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA



PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak • Osteopatia • Psikologia zerbitzuak
Psikomotritzitate • Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINTEZA
DINARRIA

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTEARIK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia



Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com




B JARRI
ZURE
IRAGARKIA



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheko • ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 • asesoriarin@asesoriarin.com

AGENDA

MAIATZA

6 OSTIRALA

Dokumentala: *Tipularen sehaska kanta.*
Aita Marin, 20:00etan.

7 LARUNBATA

Tailer irekia: Tangoa. *Maiatza Dantzan.*
Odietan, 17:00etan.

8 IGANDEA

Ekitaldia: *Gipuzkoako Erroten eguna.*
Astindu dantza elkartearen laguntzarekin.
Mareeerrota plazan (eliz atariaren azpian), 12:00etan.

12 OSTEGUNA

Zine forum: *Flee.*
Aita Marin, 19:00etan.

13 OSTIRALA

Antzerkia: *Ados Kopaz Kopa.*
Aita Marin, 20:00etan.

14 LARUNBATA

Kalejira: Musika Eskola. *Maiatza Dantzan. 12:00etan.*
Emanaldia: *Odietan, 13:00etan.*

Kontzertua: Morti Jaleo.
Martxoaren 8a plazan, 20:00etan.

15 IGANDEA

Kaleko pintura lehiaketa.
9:00etan.

Haur antzerkia: Mar-Mar *Tarzan.*
Aita Marin, 12:00etan.

17 ASTEARTEA

Kontzertua: Ahots teknikak.
Komentuan, 19:00etan.

19 OSTEGUNA

Proiektzioa: *Gnatzinema II.*
Gipuzkoako natura eta ingurumeneko zine erakustaldia.
Aita Marin, 19:00etan.

21 LARUNBATA

Tailerra eta bazkaria. Astindu eguna. Rueda Cubana tailerra.
Maiatza Dantzan.

Kontzertua: *Souvenirs de voyage,*
soka laukotea eta klarinetea.
San Telmon, 12:00etan.

24 ASTEARTEA

Entzunaldia: Musika eskolako Kantu Korala.
Komentuan, 18:30ean.

26 OSTEGUNA

Zine forum: Taylor.
Aita Marin, 19:00etan.

Rock gaua.
Ondartxon, 19:30ean.

27 OSTIRALA

Antzerkia: Bon bon noir et crotte de bique *Herriminak.*
Aita Marin, 20:00etan.

28 LARUNBATA

Emanaldia: Korrontzi tour 2022 eta Astindu Dantza Elkartea. *Maiatza Dantzan.*
Zumaienan, 19:30ean.

31 ASTEAZKENA

Mahaingurua: Dantza Garaikidea.
Maiatza Dantzan.
Aita Marin, 19:00etan.

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



IGOGAILUAK
ZARATZAK



FOSORA JAUSITAKO
OBJEKTUEN
BERRERAKURAKETA



HARRAPATZE
EGDERAK

bertako
igogailuak ikerketak

www.bertoko.eus



Emakumearen askatzea xumearen begiradatik



LANDA ALDEKO NESKAK

Egilea: Edna O'Brien (Itzultzailea: Gema Lopez de las Heras)

Argitaratzailea: EREIN-igela

Argitaratze urtea: 1960 (itzulpena 2022)

Orrialdeak: 298

Generoa: narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Landa aldeko neskak, Edna O'Brienek idatzitako eleberria, trilogia baten lehenengoa dugu. 1960an ikusi zuen argia eta hautsak harrotu zituen garaiko Irlandako gizarte ultrakatolikoan.

Garai hartako Irlandan katolizismoak hartzen eta zentsuratzen zuen dena: dena zen bekatu emakumeen ahalduntzearen kontra zegoen estatu makineria hartan. Horregatik, etxeko lanei, morrontza sexualari eta zuhurtasun inposatuari uko egin eta nahieran bizi beste desiorik ez zuten neskei buruz idaztea iraultza baten parekoa izan zen Irlanda atzerakoi, ultrakatoliko eta hertsia hartan. Hori dela eta, Edna O'Brien jaio zeneko herrixkako bikarioak liburuaren hiru ale erre zituen plazan herritar guztien agerian.

Esan liteke *Landa aldeko neskak* nobela autobiografikoa dela. Bertan XX. mendearen erdialdean landa giroan jaiotako bi neskatilaren abenturak kontatzen ditu haietako baten ikuspegitik, modu xume eta errerealistan. Caithleen eta Baba dira bi protagonistak. Caithleen

baserrian bizi da familia tradizional eta txiro batean. Ama etxeko esklaboa da eta etxea ahal duen moduan gobernatzen ahalegintzen da. Aita mozkorti ezjakin bat da, ama gaizki tratatzen du, etxeko diru sarrera apurak jokoan eta edanean xahutzen ditu eta etxeko gizona izateak ematen dion boterea baliatzen du. Caithleenek ama maite du, bere euskarria delako, eta aitari beldurra dio eta gorrotatzen du.

Baba lagun mina du. Herriko al baitariaren alaba da. Neska menderatzailea, harroputza eta berekoia. Caithleen bere mende bizi da. Ez zaio gustatzen horrelako menpetasuna izatea, baina ezin du hura gabe bizi. Bera izan ez, baina izan nahi lukeena irudikatzen du Baba bere lagunak. Batzuetan etsai,

LANDA GIROAN JAIOTAKO BI NESKATILAREN ABENTURAK KONTATZEN DITU

besteetan lagun min, biek desio bakarra dute: sorterritik alde egitea, gizarteak ezarri dien patuari ihes egitea eta haiek erabakitako moduan bizitzea.

Estiloa da nobelaren ezaugarri aipagarrienetako bat. Eguneroko kontuez, bizimodu arruntez ari da protagonista, baina idazleak haragoko zerbait iradokitze gaitasuna du. Nobela honekin, O'Brienek bozgorailua jartzen die urteetan isilaraziak izan ziren emakume irlandarrei eta deseraiki egiten ditu feminitatearen kontzeptua, amodio erromantikoaren mitoa eta gizarteak ezarritako rola.

Esan beharrik ez dago eleberria paregabea dugula *Landa aldeko neskak*, maisutasun handiz euskarara ekarritakoa eta umorez eta malenkonia gozoz zipriztindutako bete-beteko errelatoa: indarrez egindako kontakizun zoragarria. Espero dut, irakurle, nik liburua irakurtzen gozatu dudana bezainbeste gozatuko duzula zuk ere sutara joateko zoritik klasikoaren sortara egin duen nobela hau irakurtzen. ■

Kale izen bat baino gehiago

TESTUA ETA ARGAZKIA:


MARIA MAYA MANTEROLA

En busca de Vasconia. Vida de Bonifacio Etxegaray (1878-1956) liburua argitaratu du Lazaro Etxegaraik. Argitalpena maiatzaren 3an aurkeztu zuen idazleak Alondégiko Oxford aretoan egin zen ekitaldian.

Zumaiaiko izen entzutetsuenetako bat da Bonifazio Etxegarai. Zumaiaiko kale izendegiaren parte ere bada: San Jose kalea eta Erribera kalea lotzen dituen aldapak bere izena darama. Hori hala izanda ere, etxean ez du hari buruz hitz egin Lazaro Etxegarai ahaide eta idazleak, baina hala ere bazuen Euskal Herrian ere pertsonaia esanguratsua izan zelako susmoa. Bonifazioren bizitzaren eta euskarari egindako ekarpenaren inguruko liburua argitaratu du orain.

Haren inguruko zenbait datu aurreratu ditu idazleak. "Bonifazio zumaiaarra zen, baina Azpeititik iritsi zen bere familia. Aldundiko liburutegian, Donostian, lanean aritu zen lehenbizi, eta Euskal Probintzietako kronista izatera pasa zen gero. Hura izan zen EAEko hiru probintzietarako kronikari bera izendatzen zen lehen aldia". Auzitegi Goreneko idazkaria ere izan zela dio liburuaren egileak.

Madriren bizi izan bazen ere, Euskal Herrian izaten zen sarritan. "Autonomia



estatutuen idazketan parte hartu zuen, euskaltzain osoa izan zen Euskaltzaindian, baita FAPE euskararen defentsarako lehendakaria ere". Liburuaren egilearen arabera, "euskal berpizkundearekin zerikusia izan zuen gertakari guztien lekuko" izan zen Bonifazio.

Hara eta hona ibili zen Bonifazio, baina jaioterria ahaztu gabe. Lagun handiak zituen Domingo Agirre eta Julio Beobide herrikideak ere. Lazaro Etxegaraik bere liburuan jasotzen duenez, "maiz gogoratzen zuen Zumaia bere artikuluetan –bere ipuin ezagunenetako batean, *Gabon*

izenekoan, Zumaia ezagutu daiteke–".

Lazaroren hitzetan, "zaila" izan da dokumentazio prozesua, "pertsonaiari buruzko informazioa askotan Euskal Herrian ez zeuden artxiboetan zegoelako". Hala ere, bidean "Bonifaziok euskal kulturari egindako ekarpena ondo ezagutzen zuten euskaltzainak" aurkitu zituen.

Bonifazioren bizitza eta ekarpena deskubrituko ditu irakurleak, baina baita zerbaitekiko grina izatea zer den eta nola gauzatu daitekeen ere. Herria izan zen bere pasioa, eta hari eskaini zizkion bere gorputza eta arima. ■

Prokrastinazioa



JUAN LUIS ROMATET

Ordubete pasa daramat sofán botata postura berean, ezer egin gabe. Ez telebistarik, ez musikarik, ez libururik, komikirik edo aldizkaririk. Ezer ere ez. Neuronei oporrak eman dizkiet. Ohikoa baino entzefalograma lauagoa dut oraintxe.

Ordubete pasa hormari begira. Justu-justu begiak mugitzen ditut; burua, berriz, ahalik eta gutxien; egoera honetan lepoko bihurtura bat edukitzeko arriskua izango nuke. Begiak mugitze horretan konturatu naiz aitarena zen bonsaiari hosto txikiak ateratzen ari zaizkiola. Joño, eta nik pentsatzen nuen landarea lehortu zela, ez nintzela gai izan behar bezala zaintzeko. Nora bota beharko nukeen pentsatzen ere egon nintzen orain aste batzuk: hondakin organikoen edukiontzira, edo errefusakora? Oker ez banago, lurra organikora ez zela bota behar esan ziguten bere momentuan. Baina zer egin behar da landare berarekin? Ez, beste behin ere udaberriarekin biziberritu da bonsai zaharra. Hori bai, lur pixka bat gehiago jarri behar diot, sustriak airean ditu eta. Beno, hori bihar.

Begirada eskuinera mugitu eta ikusi dut ate atzean markoa eta horma lotzen dituen amaraun bat dagoela. Eta ez hor bakarrik (begiratu ezkerrean), kaktusaren besoen artean ere bai. Bizitza badago gela honetan! Armiarma txiki bat bada ere. Espero txikia izatea; araknofobiara ez da helduko, baina ikara minimo bat sortzen didate eta armiarmek. Amaraun horiek ere kendu beharko nituzke etxea txukun eduki nahi badut, baina orain momentuan ez naiz pertsona; prokrastinazioa haragitu duen izaki unizelularra naiz. Nire burua IU bezala definituko banu, inork ulertuko ote luke?

Eta hor erdian, ez ezkerrean ez eskuinean, dago DVDz betetako balda. Zenbat denbora, zenbat urte film horiek ikusi gabe? Asko, gehiegi ez esatearren. Pentsa zer ilusioekin erosi nituen bere garaian, eta hor daude orain abandonatuta, hautsa pilatzen. Neurona bat saltoka hasi zait, eta aspaldi buruan ez nuen gogoeta bat ekarri dit berriro burura: hiltzen naizenean, DVD horiek, disko horiek guztiek, liburuek, komikiek, urteekin bildutako eta pilatutako beste gai, tresna eta produktu denek garbigune batean bukatuko ote dute? Deprimitzeko garaia al da? Ez, gaur ez; neuronari geldirik egoteko esan, eta berriro hormari begira jarri naiz.

Ez dut erlojua begiratu nahi. Ondo dakit jogurta jan ondorengo egonaldi hau ordu eta erdira hurreratzen ari dela, eta lanera bueltatu beharko nukeela. Baina jakinda etorkizunera begira nire asmo, amets eta helburua (pentsio txukun batekin) erretiroa hartu eta bizitza honetan beste lerro bat bera ere ez idaztea dela, entrenatzen hasia naiz. "Zer egingo duzu erretiratzean? Aspertuko zara!", diote batzuek. Bai, bai, nahi duzuen. Batzuk aspertzeko jaiok gara, baita besteak aspertzeko ere. ■■■

**"ZER EGINGO DUZU
ERRETIRATZEAN?
ASPERTUKO ZARA!",
DIOTE BATZUEK. BAI,
BAI, NAHI DUZUENA**



Zure etxea alokatu nahi baduzu, guk kudeatuko dugu

Publizitatea, etxea prestatu, bezeroari arreta, eta garbitasun lanak egingo ditugu. Eta behar duzunean etxea eskura izango duzu.

Atera etekina etxeari

 **680 33 00 62**

 ongietorrialokairuturistikoak@ni.eus

 **@ONGIETORRIALOKAIRUAK**



egutera

ZUMAIako ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA

Zumaian bertan eguzki energia sortzera goaz. **Izan aldaketaren parte, zatoz Eguterara.**

Egin aurre matrikula:

labur.eus/egutera

Zumaia
Udala



**ZUMAI
BIZITZEKO
DA**

ekiola



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ferretería Galdona S.A.



burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



**JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA • Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17**